

**Euskararekiko motibazioa eta
ahozko trebetasuna
(11 urteko neska-mutilak)**

**Egilea: Arantxa Iartza Ansa
Tutorea: Estepan Plazaola**

AURKIBIDEA

0-LABURPENA

1-SARRERA

**Helburuak, arrazoiak.
Lanaren mugak.**

2-ITURRI TEORIKOAK

Horien haritik ateratako idea eta hausnarketa batzuk

3-IKERKETAREN METODOLOGIA

3.1.-Helburuak

3.2.-Ikerketaren Unibertsoa

3.3.-Probaren deskribapena

3.3.1.-Euskararekiko motibazioa neurtzeko galdekizuna

3.3.1.1.-Galdekizunaren xehetasunak eta neurketarako irizpideak:

3.3.2.-Ahozko trebetasuna neurtzeko ariketa

3.3.2.1.-Neska-mutilei eskatutako istorio kontaketa xehetasunak

3.3.2.2.-Ahozko trebetasunaren neurketarako irizpideak

3.3.3.-Motibazio eta ahozko trebetasunari buruzko datuen artean harremana neurtzeko modua

4-EMAITZAK

5-EMAITZEN INTERPRETAZIOA ETA ONDORIOAK

6-ETORKIZUNERAKO BIDE BATZUK

7-BIBLIOGRAFIA

8-ERANSKINAK

-Iturri teorikoetako laburpen luzea.

**-Neska mutilen erantzunak (Istorioen transkripzioak eta erabilitako
marrazkiak)**

0-LABURPENA

Sakontze egitasmo honetan 11 urteko neska-mutil multzo batek euskararekiko duen **motibazioaren** eta euren ahozko **trebetasunaren** arteko harremana aztertu nahi izan da.

Hori egin ahal izateko bi tresna sortu dira. Egileak motibazioaren gaia landuagoa zuenez, Ahozketasunaren gaia teorikoki ere jorratu du eta horretan oinarrituta neurtzeko tresna bat osatu.

Haseran jarritako hipotesia ez da bete, eta lanak muga eta hutsuneak baditu ere, datu eta ondorio batzuk atera ahal izan dira; betiere neska-mutil multzo horri dagokionez.

Gaiaren inguruko hausnarketarako aukera eman dio lanak egileari eta bere hezitzaile lanerako bide batzuk ere erakutsi dizkio.

Lan hau Estepan Plazaolaren tutoretzarekin egin da. Itziar Idiazabal eta Olatz Olasoren laguntza ere eskertzekoa izan da.

1-SARRERA

Helburuak, arrazoiak

Lan hau nola egin pentsatzerakoan hezitzaile bezala urtetan sortzen joan zaizkidan zenbait kezka hartu ditut oinarri moduan, azkenean horien artean batzuei lehentasuna eman eta “egingarri” zitzaidan horretan zentratzen saiatu naiz.

Dena den, ez dakit ez ote ditudan haseratik helburuak goregi jarri, eta, noski, horrelako lantxo batek ez dizkit bada, zalantza guztiak argituko ... Zertarako ari dira orduan hainbeste jakitun beren denbora osoa ikerketa sakonetan ematen?...

Eskola barrutik, arlo guztietan eduki dudan errezeloa hau da: irakasleok gure lanaren inguruan hausnarketa egitea ondo dago, eta kanpotik hori aztertzen badute ere hobeto oraindik. Baina, eskolak eguneroko praktika hobetzeko aholku zehatzak behar ditu. Bertakook ez dugu astirik espezialisten teoriak ezagutu, ikertzaileek atera dituzten ondorio orokorrak aztertu eta horietatik abiatuta jarduera praktikoak asmatu, prestatu eta praktikan jartzeko.

Hitz batean, ildo edo norabide nagusiak markatzea ongi dago. Baina, gero hezitzaileek norbaiten laguntza behar dute norabide nagusi horietatik proposamen zehatzak ateratzeko, aplikatzeko eta horiek nola doazen baloratzeko jarraipenez.

Lan honek bietarako aukera eman dit niri: zenbait jakitunen aholku praktikoak (halako adjektibotik urruti daudenak ere bai) ezagutzeko eta haien gainean hausnartzeko, bide batez nik eta nire inguruko lankideek egunerokoan egin dezakeguna pentsatzen ere lagundu dit.

Nondik norakoak ziren, bada, irakasle moduan nituen (eta ditudan) kezka horiek?

-Hezitzaile naizen aldetik, uste dut indar handiak jartzen ditugula haurrak euskalduntzen, eta neurri handi batean lortzen dugula, baina egia ote da euskarak hain indar gutxi duela gazteleraren aurrean? Zergatik jotzen dute gaztelerara gure neska-mutilek (zer esan gazteek...) ikastolaz kanpo edo gelako egoeratik kanpo daudenean?

-Gazteengan joera hori nabarmena da, baina, nolako egoera bizi dute nerabegarora pasa aurreko adin horretan (11-12 urte)? Zer pentsatzen dute beraiek euskarari buruz? Edo, gauza bat edo beste pentsatu, euskaraz adierazteko duten gaitasun mailan dago arazoa?

-Eskolaren eragina oso txikia da eta, juxtu euskara etxetik ikasia dakartenak dira gero ere trebetasun handiena azaltzen dutenak, eta euskaraz aritzeko motibatuak daudenak? Laguntzen ote diegu ikasle euskaldunei, beren gaitasun espresibo guztiak garatzen?

-Teoriaren argitan, zeintzuk dira “Ahozko trebetasunaren” ezaugarriak? Zein atal lirateke kontuan hartzekoak? Denek pisu berdina ote dute? Gramatika eta hiztegiari garrantzia ematen jarraitu behar dugu? Zer da gaitasun komunikatiboa, eta nola landu daiteke hau eskolan?

-Egia da “Ahozko trebetasunaren” lanketak garrantzi handia duela? Idatzizkoari arreta gutxiago eskaini behar ote diogu?

-Nolakoa da motibazioaren eragina eta alderdi hau hobetzeko bidean zer egin dezakegu eskolatik?

Galdera gehiegi dira hauek horrelako lantxo baten bidez soluzio bidean jartzeko. Hori hala bada ere, lan honek hausnarketa sakona egiteko bide eman dit niri. Gogoeta egiteko orduan, ikerketaren ondorioek adina edo gehiago lagundu didate hau prestatzeko irakurri ditudan liburu eta artikuluetan egileek azaldu dituzten ideiek.

Lanaren mugak

-Ikerketatxo hau xumea izan da, oso unibertso txikiarekin eta ikastola bakarrekoa, gainera, oso homogeneoa. Beraz, 38 neska-mutil horien “Euskararekiko motibazioa” eta “Ahozko trebetasuna” nolakoak diren eta bien artean zein erlazio dauden deskribatzeko besterik ez du balio. Ateratako ondorioak ez dira inondik ere orokortzeko modukoak.

Interesgarria litzateke beste norbaitek antzeko lan bat egitea beste herri edo ikastetxe bateko ikasleekin, gero emaitzak konparatu ahal izateko.

Nire asmoetako bat bada hemendik 2-3 urtera ikasle hauei, behin nerabezaroan bete-betean daudenean 2 proba hauek berriro pasatzea, aldaketak ikusteko. Ez dakit aukera eta denbora izango ditudan horretarako.

-Bestalde, erabilitako tresna edo probak ere honetarako prestatuak izan dira, ez daude inolaz ere estandarizatuak. Horregatik, esan liteke tresna hauek duten neurketa balioa ere oso mugatua dela. Beren fidagarritasuna ez dago inondik inora kontrastatua.

Dena den, horrelako tresna erabilgarrien urritasuna edo falta ere agertzen du, ikerketatxo honetarako bereziki sortu beharrak. Egokia litzateke, beharrezko esango nuke nik, ahazko trebetasuna neurtzeko tresna aplikagarri bat (eta zuzentzen erraza), Euskal Herrian estandarizatua, esku artean izatea.

Ahozko trebetasuna neurtzeko proba, nire ustez, fin pasa da eta transkripzioak ere zuzen egindakoak dira. Baina, erabilitako atal nagusiak eta neurketarako irizpideak egokiak izan ote dira?

Zalantzan jartzeko modukoa da, baita ere, istorio bat kontraziz bakarrik (beste testu mota batzuetan ikaslea nola moldatzen den kontuan izan gabe) ahozko trebetasun orokorrean zein maila ematen duen ondorioztatzea.

-Motibazioa neurtzeko galdekizunari dagokionez, ezin da esan atal bakoitza neurtzeko erabili diren galderak juxtu atal hori neurtzen ari zaizkigun edo, agian, beste zer bait.

Izango da bai bati eta bai besteari mila hutsune aurkituko dizkionik. Froga hauek bide ematen badute beste egokiago eta fidagarriagoak sortzeko, konforme izango nintzateke ni. Bere xumetasunean, nolabaiteko ekarria egingo dutelakoan nago, eta praktikan jartzeko modukoak izan direla argi esan dezaket.

-Bi probak hain desberdinak izanik (neska-mutilen erantzunetan oinarritua bata; aztertzailearen epai "subjektibo-objektiboan" oinarritua bestea), konparagarriak ote dira benetan Euskararekiko motibazioan eta ahozko trebetasunean ateratako puntuazio hauek?

Bai neurgailu bat zein bestea eraikitzerakoan hutsegite nabarmen bat izan dudala uste dut. Denbora arazoa zela tarteko, aurrena ikasleen erantzunak jaso eta ondoren eraikitzen joan naiz zuzenketa irizpideak. Horrek zaildu egin du nire lana eta emaitza eta ondorioetan ere sortuko zituen bere akatsak.

Eraikitze prozesu hau ikerketaren pauso aldetik oso zuzena izan ez bada ere, niretzat hausnarketa eta ikasketa bide izan da. Beraz, nire helburuetako bat aski bete dudala esan behar.

2-ITURRI TEORIKOAK

Sarreran aipaturiko kezkei argi pixka bat eman nahian Ahozketasunaren inguruko informazio biltzeko premia somatu nuen. Motibazioaren gaia oso jorratua nuen HIZNET ikastaroan (6. eta 17. irakasgaiak, Nekane Arratibel) eta horietan oinarrituta osatu nuen neska-mutilei pasa beharreko galdeketa.

Ahozko trebetasunari buruz gehiago jakiteko eta neurtzeko tresna bila hasi nintzenean bi bide jorratu nituen:

1-Ahozko hizkuntzaren ezaugarriak, ahozketasunaren garrantzia, ahozketasuna neurtzeko kontuan hartzeko atalak.

(Honetan oinarrituta osatu nituen nire probaren ebaluazio irizpideak. Azpiatal moduan Jariotasuna, Aurkezpena, Testua eta Estilistika kontuan hartzea, horien barneko osagaiak zehaztea eta AGEren antzeko neurketa modua erabiltzea (Eskarne Lopetegi berak, Irel Urreiztieta eta Isidro Yoldirekin batera, 1990) dokumentazio lan horretatik etorri ziren.)

2-Eskolan zergatik eta nola garatu Ahozketasuna.

Horien haritik ateratako idea eta hausnarketa batzuk

Hau da iturri desberdinetatik nik jaso dudaren laburpentxo bat: *(Ikus Eranskinak)*

1-Ahozko hizkuntzaren ezaugarriak, Ahozketasunaren garrantzia, Ahozketasuna neurtzeko kontuan hartzeko atalak.

-Joxerra Gartzia (1998) hizketaren baliabide POETIKO-ERRETORIKOei garrantzi berezia ematen die, ahozko testuak arrakasta izango badu, behintzat. Baina horiekin batera **tonu-entonazio-azentua, sintaxia, lexikoa, distantzia eta alderdi ez berbazkoak** ere tartean dauden ezaugarriak direla esaten du. Umorea erabiltzeari eta tradiziozko esamoldeei ere bere lekua egiten die.

-Uri Ruiz Bikandik (2003) **egokitasunak, koherentziak, zulentasunak eta jariotasunak** ahozko komunikazioan paper esanguratsua jokatzen dutela esango digu.

-Andrés Alberdik bere Gramatikan, zehatz-mehatz azaltzen ditu hizkuntzaren atal guztiak. Kasu honetan ahozkoari baino gehiago Testu narratiboaren propietateei begiratu nien nik (kontuan hartu istoriotxo bat kontatzea eskatu zitzaizela neska-mutilei, eta hori neurtu ahal izateko xehetasun bila nebilen).

Hona hemen berak azaltzen duena nola ulertu dudana:

Testuaren propietateak:	
EGOKITASUNA	-Dagokion egoera komunikatiboari moldatzen zaio testua?
KOHERENTZIA	-Testuaren koherentzia semantikoa. Edukina koherentea da? Ideak ordenatuak, progresioan..azaltzen dira?
KOHESIOA	-Esaldi desberdinak elkarrekin lotzeko lokailuak erabili dira? Egokiak dira? Esaldien koordinazioa, menderakuntza, elipsiak, ordezkapenak...
ZUZENTASUNA	-Arau gramatikalak ondo erabiliak? Fonetika, ortografia, morfosintaxia eta lexikoaren inguruko arau gramatikalak.
AURKEZPENA	-Ahotsaren kontrola, etenak, intonazioa, jestualizazioa... (beste batzuk idatzizkorako) -Hartzaileari egokitzen zaio igorlea?
ESTILISTIKA	-Aberastasuna, ugaritasuna, uzehazta lexikala -Forma sintaktikoen ugaritasun eta doitasuna -Figura erretorikoen erabilera: metaforak, hiperboleak... -Testuaren aurrean hartzen den arrisku gradua

-Eskarne Lopetegik (2003) helduen euskalduntze-alfabetatze prozesuan Ikaslearen Corpusari buruzko eskema posible bat egiten du (nik azpimarratuak dira Ahozkotasuna neurtzeko kontuan hartu ditudanak):

<p>1.1.-Aztergaien kategorizazio nagusia.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Gramatika: morfosintaxia. -Baliabide lexikalak: hiztegia. -Testuak: esaldiak edo esaldi-kateak. -Ahoskera: doinua, entonazioa <p>1.2.-Akatsen sistematizazioa:</p> <p>1.2.1.-Gramatika / Norma:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ortografia -Morfosintaxia -Semantika: erderakadak, kalkoak, analogiak... <p>1.2.2.-Diskurtsoaren antolaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ideen arteko loturak: koherentzia -Pasarte batetik besterako loturak (lokailuak): kohesioa <p>1.2.3.-Egokitasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> -Euskalkia -Erregistroa <p>1.2.4.-Aberastasuna</p> <p>1.2.5.-Jatortasuna, freskotasuna</p> <p>.....</p>
--

-Eskarne Lopetegi berak, Irel Urreiztieta eta Isidro Yoldirekin batera (1990) ondoko atalak hartzen dituzte kontuan Estatu Batuetako AGE euskarara moldatzen dutenean:

AGE-k ahoz komunikatzeko gaitasuna neurtzen du elkarrizketaren bidez, modu objetiboan eta hizkuntzaren 10 mailak irizpidetzat harturik.(ACTFL eskala)
Maila bakoitza oso zehatz definitzen du eta ikasleak atal guztietan maila hori eman beharko du, maila hori lortutzat hartua izateko.

Elkarrizketa grabatua da (berriro ere aztertua izan dadin) eta elementu guztiak hartzen ditu kontuan: **gramatika, lexikoa, jarotasuna, ahoskera, edukia eta funtzioa.**

-Juan Luis Goikoetxeak eta Iñaki Gamindek (2003), berriz, ahozko hizkuntza familiarraren ezaugarriak ematen dituzte:

Fonologia	Kontrakzioak Intonazio aldaketa aberatsak Ahoskera arduragabea Palatalizazio adierazgarriak (bustidurak..)
Morfosintaxia	Gramatika trinkoa Aditz ez jokatuak Esaldi adierazgarriak Elipsiak Leku aldaketak Tratamendua: hitanoa
Lexikoa	Mailegu gehiago Bikote lexikoak Eremu sematikoen muga lanbroak Lexiko afektiboa, kortesia formulak, esklamazioak Argota

Hauetatik guztietatik edan dut nik lan honetan aurrerago azalduko den nire ahozko trebetasuna neurtzeko eskema egituratu ahal izateko.

2-Eskolan zergatik eta nola garatu Ahozkotasuna.

Honi dagokionez bi bide desberdin jorratzen dituzte irakasleek nik irakurri ditudan txostenetan.

-Batzuk (Montserrat Vila-Anna Cros,2003; Uri Ruiz Bikandi, 2003; Marielle Rispail,2003; Itziar Idiazabal eta Luis M.Larringan, 2003) eskolak hizkuntza formala landu behar duela diote.

Beren ikerketetan bakoitzak testu mota edo hizkuntza helburu bat hartzen du kontuan eta hori garatzen du, bereziki.

Horrela, Montserrat Vila lan monografikoen prestaketan eta honen aurkezpenean zentratzen da. Uri Ruiz Bikandik elkarrizketa hartzen du lan eremu egokien bezala. Itziar Idiazabal eta Luis M. Larriganek “eztabaidaren” inguruan egin dituzte beren azken ikerketak....

Hauetatik gehienak aipatzen dute **metadiskurtsoa** lantzeko premia. Hau da, norbere hizkuntza portaeraren inguruan egin beharreko hausnarketa, ezagutza eta kontrola. **Diskurtso mota** bakoitzaren ezaugarrietara egokitu beharra ere batek baino gehiagok ikusten du: Montserrat Vilak, Uri Ruiz Bikandik, Itziar Idiazabal eta Luis M. Larriganek...

Uri Ruiz Bikandik fosilizazioaren kontzeptua azaltzen du eta komunikazio maila lortzeko hizkuntza maila aberasteaz ere hitz egiten du. Aberaste lan horretan Maria Concak, (1998) eskolak tradiziozko esamoldeak erakutsi behar dituela dio. Horiek gabe ezinezkoa izango dela herriaren metaforak berreskuratzea eta premia komunikatiboak asetzea. Antzeko zerbait proposatzen du Juan Rekaldek “Geure berbategie” proiektuan.

Besteek (Iñaki Gaminde eta Juan Luis Goikoetxea, 2003; Juan Rekalde, 2003; Julian Maia, 2001; Joxerra Gartzia, 1998...) eskolan ahozko hizkuntza formala lantzearekin ez dela nahikoa diote (gazteek eskolaz kanpo ere euskaraz adierazteko gaitasuna izatea nahi badugu, behintzat). Azken hauek eskolak ikasleak etxetik dakarren euskaratik abiatu behar duela diote. Eta *Atxikitze eta Murgiltze* eredu desberdintzea ere proposatzen dute Iñaki Gaminde eta Juan Luis Goikoetxeak (baita Juan Rekaldek ere).

Oso eztabaida interesgarria iruditu zait niri ahozko formala eta ez formalaren arteko hau (bereziki eskolak denbora eta indarra mugatua dituela jakinik). Eskola orain arte ahozko hizkuntza formala landu badu ere, eskolako egoera informaletan beste erregistro bat erabili behar ote da, herriko aldaerei leku handiagoa eginez? Nolako formula praktikoak erabili behar ditugu hori modu egokian egiteko?

Julian Maiak (2001) ere gai horri heltzen dio eta irakasleen hizkuntza gaitasuna hobetzearen premia agertzen du. Nire lanaren ikuspegitik beste galdera baten aurrean ere jarri nau:

Euskararekiko motibazioa neurtu nahi izan dut nik, baina badirudi hizkuntza ekintza bera aurrera eramateko garaian ikasleak duen motibazioak edo jarduera horretarako somatzen dituen arrazoiak hartzen dutela indarra (agian ez hainbeste orokorrean euskararekiko duen jarrera?). Itziar Idiazabal eta Luis M. Larriganek jarduera zehatzaren aurrean ikasleak duen motibazioak balio duela diote; eskolaz kanpo **mezuak** duen indarrari (zuzentasuna eta formari bakarrik erreparatu gabe) heltzen dioten metodologiek ikaslea gehiago motibatzen omen dute.

Eskolan Ahozkotasuna lantzearen premiari dagokionez hona hemen arrazoi batzuk:

-Ahoz adierazteko gaitasuna askotan eskola arrakastaren eta arrakasta sozialaren gakoa da (idatzizkoa baino gehiago). Ahozkotasunak eskola eta gizartea lotzen ditu. Eskolan pentsatzen ikastea pentsatzen ikasteko lagungarria da. (Marielle Rispail, 2003).

-Ahozko tradizioak eskaintzen dizkigun baliabideak ezagutu eta erabiltzen ikasi behar dugu, gero berriak sortu ahal izateko. Helburua gure hizkera alderdi komunikatiboan arrakastatsua izatea da. Lan horretan eskolak zeregin handia du. (Joxerra Gartzia, 1998; Maria Conca, 1998; Juan Rekalde, 2003).

-Hitz egiten hitz eginez ikasten delako. Elkarrizketa da horretarako tresna garrantzitsua. Eskolan elkarrizketa lantzea oso modu naturalean egin daiteke, baina aldi berean, modu planifikatuan, ikaslearen barne-prozesuak kanpotik bultzatuta. (Uri Ruiz Bikandi, 2003).

-Metadiskurtsoa landu behar da. Norberak bere hizkuntza portaeraren inguruko hausnarketa egiten ikasi behar du. Horretan eskolak lan sistematikoa egin dezake. (Montserrat Vila-Anna Cros, 2003; Marielle Rispail, 2003; Uri Ruiz Bikandi, 2003; Itziar Idiazabal eta Luis M. Larringan, 2003)

Teori mailako erreferentziei buruz, xehetasun gehiago datoz lan honen eranskinetan.

3-IKERKETAREN METODOLOGIA

3.1.-Helburuak:

***Euskararekiko motibazioa eta ahozko trebetasuna** neurtzeko ahalegin bat egin. Bi atal hauetako bakoitzean azpiatal batzuk zehaztu eta azpiatal desberdinetan neska mutilak zein maila ematen duten aztertu.

*11 urteko haur multzo honetan, **euskararekiko motibazioaren** eta **ahozko trebetasunaren** artean harremana ba ote dagoen aztertu. Non agertzen dira puntu sendoak eta non indartu beharrekoak?

***Euskararekiko motibazioko** eta **ahozko trebetasuneko** datuen arteko alderaketa egin ondoren, ondorio batzuk atera, bi alderdi horiek hobeto lantzen lagun dezaten. Batean eta bestean lan eginez gero, erabileraren mesedetan arituko garela pentsatzen baita.

*Gai hauek jorratzearen poderioz neska-mutil eta irakasleen artean **euskararekiko motibazio** eta **ahozko trebetasunaren** inguruan sensibilizazio lan bat egin.
(Lana egiteko garaian eta ondoren, honen zabalkundea eginez ikastola barruan).

Hipotesia: Euskararekiko motibazioaren eta ahozko trebetasunaren artean harreman sendoa agertuko da.
Hau da, Euskararekiko Motibazio maila altua dutenak Ahozko Trebetasuna ere altua izango dute. (Giro euskalduneko haurrak izango dira hauek seguruenik). Eta berdin gertatuko da puntuazio baxuekin.

3.2.-Ikerketaren Unibertsoa

-Andoaingo Ikastolako Lehen Hezkuntzako 5. mailako (11 urte) D ereduko neska-mutil guztiei (38) pasa zaie proba.

Andoain 14.000 biztanleko herria da. Euskararen ezagutza % 63,69koa da eta erabilera % 30,35koa.

Lehen Hezkuntzako 5. mailako 38 haur hauen kasuan:

-% 39,5ak: bi gurasoak euskaldunak ditu.

-% 42ak: egoera mistoa du: gurasoetako batek badaki euskaraz, besteak ez. ...

-% 18,5aren gurasoek ez dakite euskaraz: ez aitak, ez amak.

3.3.-Probaren deskribapena

Alderdi bakoitza neurtzeko honelako probak pasa zaizkie:

-Euskararekiko Motibazioa: *galdekizun idatzi* bat. Neska-mutilek emandako erantzunen bitartez neurtu da alderdi hau.

-Ahozko Trebetasuna: Ikasleei *istorio bat asmatzeko* eskatu eta audio grabazioa egin zaie. Aztertzaileak baloratu ditu istorio hauek.

3.3.1.-Euskararekiko motibazioa neurtzeko galdekizuna

3.3.1.1.-Galdekizunaren xehetasunak eta neurketarako irizpideak:

Galdekizuna aztertzailearekin batera bete dute, gelako egoeran, baina giro lasai eta ezagunean, eta zalantza guztiak argitzeko nahiko patxada hartuz.

Neurtu diren 4 atal nagusiak ondorengoak izan dira:

A.**Harreman sarea**

B.Euskararekin **identifikazioa**

C.Euskarari berak ematen dion **garrantzia**

D.Euskarak, bere ustez, duen **balioa**

Hona hemen zer azpiatal izan diren kontuan, bakoitzaren barruan zer galdera egin diren eta zer modutara eskatu den erantzuna. Bertan azaltzen da, baita ere, nolako balioa eman zaion azpiatal bakoitzari atal nagusiaren puntuazio orokorra ateratzeko garaian:

E-Motibazio orokorra: atalen arteko bataz bestekoa: $x = \frac{A+B+C+D}{4}$

4

A.Harreman sarea	A=Aa1+Aa2+Ab1+Ab2+Ab3+Ab4+Ac1+Ac2		
	BAI	EZ	
Aa1.Aiton-amona euskaldunik baduzu?			
Aa2.Aiton-amona euskaldunekin asteroko harremana baduzu?			
	Euskaraz	Gazteleraz	Bietara (Ez dakit)
Ab1.Familian zein hizkuntza...			
Ab2.Aitarekin zein hizkuntza...			
Ab3. Amarekin zein hizkuntza...			
Ab4. Anai-arrebekin zein hizkun..			
Ac1. Lagunekin zein hizkuntza...			
Ac2. Eskolaz kanpoko ekintzetan zein hizkuntza...			
<p><i>*Neurketarako irizpideak: -Bai: puntu 1/ Ez: 0</i> <i>-Euskaraz: 1/ Gazteleraz: 0/ Bietara (ez dakit): 0,5</i> <i>*Salbuespena: Ab3: Euskaraz: 2/ Gazteleraz 0/ Bietara (ez dakit): 1</i></p>			

B.Euskararekin identifikazioa	B=B1+B2+B3+B4+B5+B6		
	Euskaraz	Gazteleraz	Bietara (Ez dakit)
B1.Pentsamendu eta ametsa zein hizkuntzatan?			
B2.Txiste bat kontatu zein hizkuntzatan?			
B3.Telebista+irratia zein hizkuntzatan gustuko?			
B4.Medikuarengana...zein hizkuntzatan gustuko?			
B5.Kanpaldian...lagunak zein hizkuntzatan..gustuko?			
B6.Kirol entrenatzailea zein hizkuntzatan gustuko?			
<p><i>*Neurketarako irizpideak: -Euskaraz: 1/ Gazteleraz: 0/ Bietara (ez dakit): 0,5</i></p>			

C.Euskarari berak ematen dion garrantzia	C=C1+C2+C3+C4+C5		
	ASKO	ERDIZKA	GUTXI
C1-Handia zarenean, zenbaiteraino inporta zaizu ikasketak euskaraz jarraitzea?			
C2-Nolako garrantzia ematen diozu zuk euskaraz ongi hitz egiteari?			
C3-Inportantea al da irakasleak ikasleei euskaraz hitz egiteko eskatzea?			
C4-Axola al zaizu zure aktore, kirolari...gogokoenak euskaraz jakitea?			
C5-Garrantzizkoa al da.,zuretzat, guraso eta lagunekin euskaraz hitz egitea?			
*Neurketarako irizpideak: -Asko: 1/ Erdizka:0,5 / Gutxi :0			

D.Euskarak duen balioa			
	BAI,ADOS	EZ NAGO ADOS	EZ DAKIT
D1-Euskaraz jakitea ona da horrela nota onak ateratzen dituzulako.			
D2-Euskaraz jakitea ona da handia naizenean lana errezago bilatzeko.			
D3-Euskaraz jakitea ona da horrela beste edozeinek esandakoa ulertzen duzulako.			
D4-Euskaraz jakitea ona da lagun gehiagorekin harremana izateko.			
D5-Euskaraz jakitea ona da horrela gelan gusturago nagoelako			
*Neurketarako irizpideak: Bai: 1 / Ez: 0 / Ez dakit 0,5			

3.3.2.-Ahozko trebetasuna neurtzeko ariketa

3.3.2.1.-Neska-mutilei eskatutako istorio kontaketa xehetasunak

Zergatik aukeratu dut istorio kontaketa eta ez beste testu mota bat?

-Antzeko testuak prestatu eta kontatzen ohituak daude ikasle hauek gelan. Hala ere, egoera ez da berdina izan. Oraingoan kideari kontatu behar baitzioten aurrez-aurre eta grabagailuari hitz eginez, gainera.

-Bestalde, ahozko trebetasuna neurtzerakoan, garrantzi handikoa jo dut komunikazio gaitasuna kontuan hartzea, ez ahozko testu bat egituratzeko gaitasun hutsa.

Ikasleak bikoteka jarriak izan ziren (gelan beste inor ez zegoelarik) eta aztertzaileak hitz hauek esan zizkien:

“Orain egingo dugun hau ariketa arrunta da, ez da ebaluaziorako eta ahal duzuen lasaia egingo duzue”. (*Norbait urduri azalduz gero, gelan ere egiten ditugun arnasketa batzuk egin*).

“Aurrean dituzun marrazki hauetan begiratuta istorio bat kontatu behar diozu lagunari, bukaera zuk asmatu behar duzu eta nahi duzun bezala kontatu behar duzu, baina hobe saltsa eta piper pixkat sartzen badiozu. Zure helburua lagunarentzat modu dibertigarrian kontatzea izango da, berak ondo pasatzea.

Elkarrizketa eta doinu gora-beherak sartzen badituzu hobeto aterako zaizu (adibidea).

Minutu batzuk dituzu pentsatzeko, listo zaudenean esan eta grabagailua martxan jarriko dugu”.

Aztertzaileak erabaki du aurretik nor hasiko den kontatzen (lehentasuna eman ez erreztasun gehiena eduki dezakeenari). Bikoteak aukeratzekoan lagunak direnak elkarrekin jarri: egoera lasaia sortzen saiatu.

Ikasle batek kontatu ondoren besteari bere aurrean galdera hauek egin:

“-Gustatu zaizu? Dibertigarria izan da? Ondo pasa duzu?”

“-Doinu eta espresio aldetik nola kontatu duela iruditu zaizu?”

“-Jario aldetik nola? Asko trabatu da? Nahiko arin kontatu du?”

“-Hizkuntza aldetik: hiztegia, aditza, ahoskera...egokia eta aberatsa erabili duela uste duzu?”

**Galdera hauen helburua alderdi hauen inguruko hausnarketa txiki bat egitea izan da.*

3.3.2.2.-Ahozko trebetasunaren neurketarako irizpideak

Ebaluatzeko irizpideak: Atal bakoitzari: 1-2 edo 3 balorazioa eman zaio, maila kaskarretik onera.

- 1-JARIOTASUNA (Hitz kopurua+jarioa)
- 2-AURKEZPENA+EGOKITASUNA
- 3-TESTUA (Koherentzia+Kohesioa)
- 4-ESTILISTIKA+ABERASTASUNA

5-Trebetasun orokorra: atalen arteko batz bestekoa: $x = \frac{1+2+3+4}{4}$

4

Hona hemen kontuan hartu diren atal nagusiak eta horien barruan baloratu dena. Atal bakoitzari, azkenean 1 eta 3 arteko puntuazioa eman zaio, barnean dituen azpiatalen balorazioa egin ondoren.

5.TREBETASUN OROKORRA:

1-JARIOTASUNA –Hitz kopuru orokorra
(Puntuazioa: 1-75 hitz edo gutxiago/ 2-75-115/ 3-115 baino gehiago)
-Hitz kopurua segunduko.
(1-1,30 edo gutxiago/ 2-1,30-1,70/ 3-1,70 baino gehiago)

2-AURKEZPENA+EGOKITASUNA –Ahoskera (Herriko aldaera: bustidurak..
erabiltzea baikorki baloratu)
-Intonazioa: gora-behera espresiboak.
-Asmo komunikatiboa izaten saiatu eta lortu duen (kidearen erantzuna kontuan hartuta)
-Ulertu zaion (bestearen arreta bereganatu duen)

***Egokitasuna, teorikoek Testuaren barruan kokatzen badute ere, nik oso lotua ikusi dut komunikazioarekin. Hartzailari egokitzea da nik atal honetan sartu dudana..
Era honetara, gainera, 4 atalek antzeko pisua hartzen dutela iruditu zait.*

3-TESTUA: -Koherentzia: -Egitura: Sarrera+Korapiloa+Konponbidea (gutxieneko izaera)
-Ideien orden logikoa

-Kohesioa: -Alderdi morfosintaktikoa (esaldiaren orden sintaktikoa/ zuzentasun gramatikala)
-Lokailuak+anaforak (hitzak ez errepikatzeko baliabideak)

4-ESTILISTIKA+ABERASTASUNA:

- Umorea erabili (baliabide poetikoak)
- Esamoldeak erabili (eginak edo asmatuak)
- Elkarrizketa erabili (sarrera batekin hobe) (zehar galdera)
- Hiztegi aberatsa; zehaztasun, deskribapenak... ideia orijinalak
- Forma sintaktiko aberatsak: ez sinpleak eta beti berdinak

***Estilistika Andrés Alberdik (Eskola gramatika liburuan) erabiltzen duen kontzeptua da. Nik umorea (Joxerra Gartzia), esamoldeak (Maria Conca) eta elkarrizketa erabiltzea erantsi dizkiot aberasgarritasun seinale moduan.*

3.3.3.-Euskararekiko motibazio eta Ahozko trebetasunari buruzko datuen artean harremana neurtzeko modua:

Ez da erraza izan erabakitzea zein erataria bilatu bi atal horien arteko harremana ; ez eta harreman hori noiz hartu behar den esanguratsutzat eta noiz ez.

Azkenean, Sierra Bravori (2001) jarraiki, aldagaien arteko lotura koefiziente moduan “Pearsonen R”a erabili dut.

$$r = \frac{\sum xy - \frac{(\sum x) \cdot (\sum y)}{N}}{\sqrt{\left(\sum x^2 - \frac{(\sum x)^2}{N}\right) \cdot \left(\sum y^2 - \frac{(\sum y)^2}{N}\right)}}$$

Ikerketaren datuak elkarren artean “Pearsonen R”aren arabera konparatu ondoren ateratako lotura koefizienteak nahiko esanguratsuak izan diren edo ez baloratzeko orduan, Sierra Bravok bere liburuan azaltzen duen taula hau baliatu dut:

Lotura koefizientea	Harremanaren nolakotasuna
0,70 baino handiagoa	Oso sendoa
0,50 eta 0,69 artekoa	Esanguratsua
0,30 eta 0,49 artekoa	Erdizkakoa
0,10 eta 0,29 artekoa	Behekoa
0,01 eta 0,9 artekoa	Kontuan ez hartzekoa

Dena den, azaldu diren lotura koefizienteen azterketa bat egin dut, grafikoak behatuaz. Datuen banan-banakako azterketa ez hain zientifikoa egin dut, atalen artean atera den harreman mailaren arrazoiak bilatu nahian.

4-EMAITZAK

Lotura azpiatal guztiekin atera badut ere, hona hemen garrantzitsuenak. Helburua **euskararekiko motibazioaren** eta **ahozko trebetasunaren** arteko harremana ikustea zenez, “trebetasun orokorrak” “motibazioaren azpiatalekin” eta “motibazio orokorrak trebetasunaren azpiatalekin” duten harremana azaltzen dut, ondoren:

		Lotura koefizientea
5-TREBETASUN orokorra	E-MOTIBAZIO orokorra	0,369 erdizkakoa
5-TREBETASUNA	A-Harreman sarea	0,264 behekoa
5-TREBETASUNA	B-Identifikazioa	0,345
5-TREBETASUNA	C-Garrantzia	0,381 erdizkakoa
5-TREBETASUNA	D-Balioa	0,064 kontuan ez hartzekoa
E-MOTIBAZIOA	1-Jarriotasuna	0,220 behekoa
E-MOTIBAZIOA	2-Aurkezpena	0,502 esanguratsua
E-MOTIBAZIOA	3-Testua	0,275 behekoa
E-MOTIBAZIOA	4-Estilistika	0,336 erdizkakoa

erdizkakoa

Beste azpiatal batzuen arteko harremana:

	Trebetasunaren atalak	Lotura koefizientea
A-Harreman sarea	1-Jarriotasuna	0,178 behekoa
A-Harreman sarea	2-Aurkezpena	0,500 esanguratsua
A-Harreman sarea	3-Testua	0,262 behekoa
A-Harreman sarea	4-Estilistika	0,370 erdizkakoa

	Motibazioaren beste atalak	Lotura koefizientea
A-Harreman sarea	B-Identifikazioa	0,725 oso sendoa
A-Harreman sarea	C-Garrantzia	0,488 erdizkakoa
A-Harreman sarea	D-Balioa	0,188 behekoa

Emaitza hauek agertzen dute, hipotesiak aurreikusten zuen bezala, euskararekiko motibazioa eta ahozko trebetasuna artean harremana egon, badagoela. Baina harreman hau ez da oso sendoa. Hau da, **euskararekiko motibazioaren** eta **ahozko trebetasunaren artean topatzen den harremana erdizkakoa da atal orokorrak**

kontuan hartuz gero. Azpiatal-bikote gehienetan ere erdizkakoa da eta batzuetan behe mailakoa. Salbuespena “aurkezpenaren” kasua da, “motibazio orokorrarekin” edota honen atal den “harreman sarearekin” lotzen badugu harremana esanguratsua dela esan dezakegu.

Beste emaitza batzuk:

Atal nagusi baten eta bestearen artean alderaketa egin aurretik atera diren puntuazioei dagokionean, ahozko trebetasunean ateratakoak azpimarratu nahi ditut. Laburtuz, zera esan daiteke: “aurkezpenak” puntuazio altua lortu du eta “estilistikak”, berriz, baxuena.

5-TREBETASUNA	
1-Jarriotasuna	
Hitz kopuru batz bestekoa	94,92
Abiadura (hitz/sg) batz bestekoa	1,50
2-Aurkezpena batz bestekoa (1-3)	2,2
3-Testua batz bestekoa (1-3)	2,04
4-Estilistika batz bestekoa (1-3)	1,64

E-MOTIBAZIOA	
1-Harreman sarea: batz bestekoa (0-1)	0,65
2-Identifikazioa: batz bestekoa (0-1)	0,62
3-Garrantzia: batz bestekoa (0-1)	0,74
4-Balioa: batz bestekoa (0-1)	0,86

5-EMAITZEN INTERPRETAZIOA ETA ONDORIOAK

Emaitza eta ondorio hauek ikasle multzo honi buruz hitz egiten digute, ez dira orokortzeko modukoak.

Beraz hemendik aurrera egingo diren baieztapenak ikasle multzo honek azaldutakoak direla irakurri behar da.

Euskararekiko motibazioaren eta ahozko trebetasunaren artean topatzen den harremana erdizkakoa da atal orokorrak kontuan hartuz gero.

Ondorio horren arrazoiak hauek izan daitezke:

-Euskararekiko motibazioa neurtzeko ikasleak bete duen galdekizuna erabili da eta ahozko trebetasuna neurtzeko aztertzailearen irizpidea. Bietan oinarrituta egin ote daiteke konparazio egokirik?

Adibidez, motibazioaren barruan euskarari ikasleak ematen dion “balioa” oso lotura gutxirekin aterata da, bai “ahozko trebetasunarekin”, bai “harreman sarearekin” ere. Oso erraz jotzen dute balioa duela esatera, baina fidagarria ote da erantzun hori?

-Lan honetan kontuan hartu ez diren aldagaiak daude tartean, eta hauen eragina (seguruenik) handia da:

*Ahozko trebetasunari dagokionean:

-Istorio motza (ipuin motza) testu mota bat da, baina ez nahiko “Ahozko trebetasun orokor” bat horrekin bakarrik neurtzeko.

Badira beste batzuk ere neurtu beharrekoak (elkarrizketa, eztabaida, antzerkia, lan baten aurkezpena...). Ikasle batek batean izan dezake trebetasun handiagoa eta bataz besteko bat aterata beharko genuke. Baina, aldi berean, kontuan hartu behar da 11 urteko neska-mutilez ari garela eta testu mota guzti hauetan oraindik ez daudela trebatuak.

Bestalde, aurreko pasartean aipaturiko testu mota gehienak “formalak” dira eta, agian, ahozko trebetasuna neurtzerakoan egoera “ez formaletan” oinarritu izan bagina oso bestelako emaitzak lortuko genituen. (Nik ez dut uste halako aldeak egongo lirakeenik, baina hori frogatzeke geratzen da).

-Zenbait gaitasun pertsonaletan desberdintasun handiak egon daitezke ikasle batzuen eta besteen artean eta ez dira kontuan hartuak izan:

- Gaitasun kognitiboak (eragin handia du istorioaren katea sortzerakoan).
- Adierazpenerako gaitasuna...

*Planifikatzeko oso denbora gutxi eman zitzaion eta zenbait ikaslerengan urduritasuna sortu zuen egoera horrek (helduengan sortuko lukeen bezala). Honek ere bere eragina izango zuen azaldutako Ahozko trebetasun mailan.

Ahozko trebetasunak lotura txikia du ikaslearen harreman sarearekin.

Teorikoek esan dutenaren kontrakoa gertatzen ote da neska-mutil talde honetan? Zer arrazoi daude tartean?

-Harreman sare ez euskalduna edo erdi-euskalduna duen ikasle multzo handi batek ahozko trebetasun maila dezentea azaldu du. Harreman sare oso euskalduna duten ikasle batzuk, berriz, erdi-mailako trebetasuna azaldu dute edo, ez behintzat goi-mailakoa.

-Hemen ere badago kontuan hartu gabeko beste aldagai bat jokoan. Ikasleak esaten duenean “harremana euskaraz” egiten duela, zer hizkuntza kalitate mailan ari da hori gertatzen? Etxean eta beste harremanetan erabiltzen den hizkuntza maila hobetzeko premia azal dezake honek.

-Aurreko baieztapenarekin lotuta: zer gertatuko da 11 urteko neska-mutil hauen artean ahozko trebetasun gutxi azaldu dutenekin eta beren harreman sarearekin hemendik urte gutxira, nerabezaroan sartzan direnean? Nire ustez oraindik euskaraz diren horiek (baita etxe barrukoak ere) gazteleraz egingo dira.

Ahozko trebetasunak ez du loturarik neska-mutilek euskarari ematen dioten balioarekin.

-Alde batetik oso trebeak azaldu ez diren neska-mutilek ere balio handia eman diote euskarari. Bestetik, badira neska-mutil batzuk harreman sare oso euskaldunekoak euskarari balio erdiparekoa eman diotenak.

-Orokorrean oso puntuazio altua atera du azpiatal honek. Zalantzan egon daiteke emandako erantzunaren benekotasuna; alde batetik oso erraza izan zaielako baietza ematea eta bestetik “ez dakit” erantzuna askotxotan eman dutelako.

Euskararekiko motibazio orokorra eta harreman sarea modu esanguratsuan lotuak agertu dira aurkezpenarekin.

-Kontuan hartzen badugu ahoskera, herriko aldaeraren erabilera, intonazioa eta asmo komunikatiboa izan eta lortzea baloratu direla, alderdi “ez formaleko” ezaugarri gehienak harreman nahiko estuan azaltzen zaizkigu motibazioarekin eta harreman sarearekin, noski.

-Horren haritik, badirudi ahozko “ez formalari” garrantzia eman behar diogula, eta testuinguru euskalduna duten horien trebetasuna eta motibazioa indartzen jarraitu behar dugula .

-Aldi berean gogoratu behar da aztertzaileak atal honi eman ziola indar gehiena ikasleei proba egin zienean. Beraz, irakasleek konszienteki landu edo azpimarratzen duten horretan ikasleek ondo erantzuten dutela esan daiteke. (Ez ahaztu aurkezpeneko puntuazioak izan direla ahozko trebetasunean azaldu diren altuenak).

-Estilistika (edo aberastasuna), berriz, nahiko baju atera da. Ahozko trebetasunaren azpiatal honetan badago zer hobetua.

Euskararekiko motibazioa eta harreman sareak oso lotura txikia azaldu dute Jariotasunarekin.

-Euskaldunen izaerarekin edo espresio estiloarekin zerikusirik izan dezake honek. Harreman sarean puntuazio altuko neska-mutil askotxok azaldu du Jariotasun maila erdiparekoa. Jatorriz euskaldunak ez diren zenbaitzuk, berriz, atal honetan puntuazio altua lortu dute.

Atal eta azpiatalen arteko loturetan oso sendo agertu den bakarretakoa harreman sarearen eta euskararekiko identifikazioaren artekoa da.

-Biak Motibazio orokorraren barneko azpiatalak badira era, azpimarratzekoa iruditzen zait lotura hori.

-Oso sendo azaldu dira, baita ere, ahozko trebetasun orokorra eta bere barneko azpiatal gehienak.

6-ETORKIZUNERAKO BIDE BATZUK

Ahokotasuna modu sistematikoan lantzea (lantzen jarraitzea) komeni da, erregistro “ez formalari” ere bere garrantzia emanez, ahal bada; bereziki jatorriz euskaldunak direnekin.

Ahozkoaren lanketa formalari dagokionez, orain arte bezala diskurtso mota asko landu arren, bat edo bi ardatz moduan hartu eta horietan gehiago sakontzeak merezi du, metadiskurtsoa ere landuz.

Egoera ez formaletan herriko hizkera bultzatu. Batua egoera formal eta idatzietan landu.

Andoaingo herri hizkeran gehiago oinarritu ahal izateko bertako hizkera eredu, tradiziozko esamoldeen... bilduma egin beharko litzateke.

Euskararekiko motibazioa lantzen jarraitu behar bada ere (erabilera eta balioa, bereziki), eskolako hizkuntza jardueri helburu praktikoa jarri, “egoeran jartzeraino” iritsi. Lan horretan familiak ere sartu edo sartzen jarraitu.

Familian hizkuntza bultzatzeko (baita neska-mutilak koxkortzen direnean ere) eta gurasoak euskara ikastera edo hobetzera animatzeko lan handiagoa ere egin beharko genuke. Baina, guraso euskaldun zaharren kasuan, etxeko hizkuntzari buruzko harrotasuna ere zainduz.

7-BIBLIOGRAFIA

ALBERDI, Andrés (1996). *Eskola Gramatika* (DBHko Ostadar Proiektua). Donostia: Elkar GIE.

CONCA, Maria (1998). *Ahozkoahotasuna eta fraseologia*. In: Euskara mintzatuaren erronkak, Fito Rodriguez eta Imanol Esnaola editoreak. Donostia: Ibaeta Pedagogia Euskal Herriko Unibertsitatea, 51-55 or.

GARTZIA, Joxerra (1998). *Hedabideetako euskara mintzatua*. In: Euskara mintzatuaren erronkak, Fito Rodriguez eta Imanol Esnaola editoreak. Donostia: Ibaeta Pedagogia Euskal Herriko Unibertsitatea, 11-24 or.

GAMINDE, Inaki eta GOIKOETXEA, Juan Luis (2003) Ahozko corpusen premia eta euron erabilgarritasuna eskolan. In: Ahozkoahotasuna aztergai VII. Jardunaldiak. Bilbao: Mendebaldea Kultura Alkartea 7. zb, 107-129 or.

REKALDE, Juan (2003). “*Geure berbategie proiektua*” ahozko aberastasunaren lekuko. In: Ahozkoahotasuna aztergai VII. Jardunaldiak. Bilbao: Mendebaldea Kultura Alkartea 131-155 or.

MAIA, Julian (2001). *Eskola eta tokian tokiko hizkuntza aldaera*. In: Euskalkia eta Hezkuntza. Bilbao: Mendebaldea Kultura Alkartea 5. zb, 97-129 or.

IDIAZABAL, Itziar eta. LARRINGAN, Luis M.(2003). *Gaitasun diskurtsiboa: hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren didaktikan giltzarri*. In: Hik Hasi aldizkaria 78. (Irakasle hauen artikuluaaren laburpena). Donostia.

Uri RUIZ BIKANDI *Ahozko hizkuntzaren lanketa, bereziki euskara bigarren hizkuntza dutenentzat*. In: Ahozkoahotasuna ikasgelan, X. Jardunaldi Pedagogikoak. Gasteiz: Ikastolen Elkartea, 33-56 or.

RISPAIL, Marielle (2003). *I kasgelan hitz egin eta ahozko hizkuntza irakatsi*. In: Ahozkoahotasuna ikasgelan, X. Jardunaldi Pedagogikoak. Gasteiz: Ikastolen Elkartea, 76, 81,82,83 or.

CROS, Anna eta VILA, Montserrat (2003). Ahozko hizkuntzaren erabilera formalak eta horien irakaskuntza. In: Ahozkoahotasuna ikasgelan, X. Jardunaldi Pedagogikoak. Gasteiz: Ikastolen Elkartea, Aparteko txostena.

LOPETEGI, Eskarne. *Hizkuntzaren kalitatea, kezka nagusiak eta proposamenak* (Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren web orria)

URREIZTIETA, Irel/ YOLDI, Isidro/ LOPETEGI, Eskarne (1990). *Ahozko gaitasunerako elkarrizketa, ahozko gaitasun-mailak neurtzeko azterpidea*. In: HABE-ZUTABE aldizkaria 22 , 164-173 orr.)

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki/ JAUSORO, Nekane (1998). *Euskarazko gizarte sareak hiri guneetan*. In: Euskara mintzatuaren erronkak, Fito Rodriguez eta Imanol Esnaola editoreak. Donostia: Ibaeta Pedagogia Euskal Herriko Unibertsitatea, 85-115 or.

GOIKOETXEA, Nekane/ OÑEDERRA, Idoia/ ZINKUNEGI, Amaia (1997). *DEBA: gazteak eta euskara*. Debako Udala (Euskara Batzordea).

ARRATIBEL, Nekane(2003). *Gizarte psikologia, motibazioak, hizkuntza jarrerak*. HIZNET-02-03 Hizkuntza Plangintza ikastaroa, 6. irakasgaia. Eusko Ikaskuntza.

ARRATIBEL, Nekane(2003). *Motibazioa plangintzan*. HIZNET- 02-03 Hizkuntza Plangintza ikastaroa, 17. irakasgaia. Eusko Ikaskuntza.

SIERRA BRAVO, Restituto (2001). *Técnicas de investigación social. Teoría y ejercicios*. Madril: Paraninfo (14.edizioa), 504-517 or.

8-ERANSKINAK

Iturri teorikoetako laburpen luzea

Ahozko hizkuntzaren erabilera formalak eta horien irakaskuntza

Anna Cros-Montserrat Vila

(Ahozkotasuna ikasgelan, X.Jardunaldi Pedagogikoak, 2003, Ikastolen Elkarte, Aparteko txostena) *Artikuluaren laburpena.*

Montserrat Vila Unibertsitateko irakasle da eta bere ikasleak jartzen ditu lanen aurkezpen publikoak egiten eta hortik atera dituen zenbait ondorio aipatzen ditu, beti “Retorica”-ren legeak irizpidetzat harturik.

Hona hemen nola azaltzen dituen Ahozkotasunaren fase desberdinak:

-Inventio fasea: ideak eta arrazoiketak aukeratzen dira eta horiek, asmo komunikatiboarekin, erabiltzen ari den diskurtso motaren legeekin...bat etorri behar dute.

Azalduko den gaiari buruzko ezagutza ere eskatzen du.

**Ikasleek ideak sortu eta aukeratzeko zailtasunak dituzte, ezagupen orokor batzuen falta.*

Diskurtso motaren legeak ere asko landu beharrekoak dira.

-Dispositio fasea: ideak antolatzen dira, horiek diskurtsoan modu logikoan kokatuz eta horretarako beharrezko lokailu egokiak erabiliaz. Testu egiturak ezagutu egin behar dira.

**Ikasleen zailtasunak honako hauek izaten dira: diskurtso kohesiodunak ekoizteko egokiak diren lokailuak erabiltzeko eta edukiak modu ordenatuan, progresio batekin eta era osatu batean antolatzeko.*

Zailtasuna idea konplexuak eraikitzeke orduan handia izaten da. Argudioak arrazoitzeko eta horiek ez errepikatzeke zailtasunak.

Lokailuak ez erabiltzeko edo beti berdinak edo modu desegokian erabiltzeko joera dute.

-Elocutio fasea: ideak azaldu egiten dira. Hemen garrantzi handia hartzen dute alderdi ez linguistikoak.

Fase honek ahozko hizkuntzan bakarrik hartzen du garrantzia, ez hala idatzian.

-Aurkezpen egoki baterako 4 lege: (Calsamiglia eta Tusón 1999, 338-339 or)

1-Erabiltzen ari zaren hizkuntzarenak diren arau gramatikalak eta hiztegia erabil itzazu.

2-Argia eta zehatza izan zaitez. Ordena eta egitura baliabideak erabiltzen saia zaitez.

3-Sortzaile izan zaitez. Zure hizkuntzaren baliabide espresiboei zuku atera iezaiezu.

Erabiliegia dagoen horretatik ihes egin ezazu. Hartzaileari ezustekoa eman iezaiozu.

4-Zure mezua hartzailearen erantzunera egoki ezazu.

Ahozotasuna eskolan lantzen

Ahozotasuna lantzerakoa eskolak izan behar duen helburua: ikasleak diskurtso formalaren zatien kudeaketan entrenatzea da.

Kontuan hartu behar da eskolan lantzen den (edo landuko den) trebetasun hori eguneroko praktika kolokialetik urruti dagoela eta horrek ikasleari zailtasun handia dakarkiola.

*Diskurtso mota bakoitzak bere legeak ditu: testu egitura berezia, hizkuntz erregistroen menperatze morta zehatz bat, lokailu metadiskurtsiboen kontrol berezi bat...

*Metadiskurtsoak garrantzia hartzen du ikasketa prozesu honetan: norbere hizkuntza portaeraren inguruan hausnarketa, ezagutza eta kontrola lortzen joatea da metadiskurtsoa lantzea.

Hau guztia eskolan ezinbestean landu beharrekoa da.

-Eskolan landu daitezke: lan edo esperientzia baten aurkezpena; talde eztabaida; ahots gorako irakurketa...

PLANIFIKAZIOA:

-Testu planifikatuak informazio kantitate handiagoa izaten dute ez planifikatuak baino.

-Testu planifikatuetan lokailu diskurtsibo eta metadiskurtsibo gehiago erabiltzen dira, hizkuntzaren erabilera ez formalean baino.

-Testu planifikatuetan hiztegi egokiago eta estandarizatuagoa erabiltzen da eta sintaxia ere modu sistematizatuagoan erabiltzen da.

EGOERAN JARTZEA:

Garrantzi handikoa da ikaslea egoera zehatz batean, azalpen bat hartzaile batzuen aurrean egin beharrean jartzea.

-Hartzailearen aurrean azaltzen da diskurtsoa. Beraz hartzailearen erantzunari moldatu behar bat emango da.

-Garrantzia du ez gehiegi luzatzeak, informazio gehiegi ez emateak, hartzailearen ulermena eta atentzia ziurtatzeak.

-Prosodiak garrantzia du: intonazioa, geldione egokiak, ez azkarregi joatea...

ZAILTASUNAK:

Askotan "Ezintasun kognitiboa" ematen da: ikasleari ezinezko baitzaio une berean hainbeste aldagai kontuan izan eta kontrolatzea. Hori dela eta askotan erdi-irakurritako edo erdi-memorizatutako aurkezpenak egiten dituzte eta horiek hartzailearentzat oso aspergarriak egiten dira, ulertzeko zailak eta **komunikazio** maila kaxkarrekoak.

IKASLEEKIN LAN EGITEKO PROPOSAMENAK

-*Ideak sortzeko helburua duten jarduerak praktikoak* : aurregidoiak prestatu eta entzuleen aurre-erantzunak jaso, gero aldaketak egiteko.

-*Diskurtsoaren edukina ordenatzeko eta egoera komunikatibo desberdinetara egokitzeko helburua duten jarduerak.*

-*Ereduen azterketak egiteko jarduerak*: hausnarketa bideratzeko asmoarekin.

-*Mekanismo diskurtsiboetan trebatzeko praktikak* (lokailuen erabilera; hitzak ez errepikatze teknika..)

-*Sekuentzi didaktikoen bitartez antolatu jarduerak*: norbere ahozko hizkuntza aztertze grabazioen azterketa ere erabiliz.

-Aurkezpena lantzeko jarduerak:

- Ahotsa eta mogimenduak kontrolatzekoak
- Ikusentzunezko baliabideak erabiltzekoak
- Entzulearen erantzuna irakurtzen ikasteko eta horietara moldatzeko teknikak
- Gidoi prestaketak
- Aurkezpenak prestatzeko aurre-entrenamenduak: norbere aurkezpenaren inguruko hausnarketa. (grabazioak entzunez...)

Montserrat Vilak eskolan lan zehatz batean zentratzea proposatzen du eta hori sakoneraino landu eta aztertu. Hobe jarduera bat hartu eta horrekin prozesuaren pauso guztiak aurrera eramatea, mila puntu ikutu, baina beti azalean geratzea baino.

Ikasgelan hitz egin eta ahozko hizkuntza irakatsi

Marielle Rispail

(In: Ahozkotasuna ikasgelan, X.Jardunaldi Pedagogikoak, 2003, Ikastolen Elkarte, 76, 81,82,83 orr.) *Zati baten laburpena*

Zergatik landu eskolan ahozkotasuna?

- Askotan eskola arrakastaren eta arrakasta sozialaren gakoa delako (idatzizkoa baino gehiago).
- Hitz kapital sinbolikoa delako.(Bourdieu)
- Eskola eta gizarte lotzen dituelako.
- Ahozkoa boterea eta plazerra delako.

Rispail-en iritziz eskolak ezin du ahozko hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntza baztertu, justizia soziala bermatu nahi bada, bederen.

Ahozko hizkuntza irakatsi, baina, zein helbururekin?

Helburua eskolako hizkuntzaz jabetzea da. Ikasteko beharrezko den hizkuntza bereganatzea, kultura ere bereganatzeko.
Ahoz lantzen dugun horrek, eskolako jardueretan idatzizkoarekin lotura handia izango du.
Eskolan hitz egitea pentsatzen ikasteko lagungarria da.
Garrantzi handikoa da eskolan ahozkotasunaren lana sistematikoa izatea, antolaturiko jardueren bidez.

Irakasle honen iritziz, gelan hitz egiteko ez da beharrezko ikaslea motibatuta egotea. Ezinbesteko da, berriz, ikasleak hitz egitearen zentzua eta arrazoia ulertzea. Hitz egitea ezagutzaren eta ikaskuntzaren lorpena bideratuak egongo denez, irakasleak agindu zorrotz eta zehatzak eman behar ditu. Zenbait komunikazio egoera sortu beharko dira gelan eta egoera zehatz horietan erabiltzeko hizkuntza maila egoki eta moldatuaren ardatzak irakasleak eman behar ditu.

Zein eratako ariketak landu?

Ariketa motzak behar dute izan. Horiek errepikatze, berregiteko eta hobetzeko aukera egon dadin. Ekoizpen laburrak **grabatzea** garrantzi handikoa da, horiek entzun eta zuzentzeko, horien inguruko hausnarletak egin ahal izateko.

Adibideak:

- hitz zail bat berradieraztea
- dokumentu bat (pertsonek, leku bat...) aurkeztea
- gertakizun bat bere testuinguruan kokatzea
- kanpoko parte hartzailearen bati galdera bat egitea
- leku batera joateko bidea galdetzea
- norbaiti kontra egitea
- galdera bat egitea
- azalpen baten sarrera egitea
- gauza bat zergatik dugun gustukoa edo ez gustukoa

- gaitasun bat gazteago bati azaltzea
- gauza bat egiteko beharrezko dena azaltzea
- komunikazio egoera bat aztertzea.....

Ahozko ekoizpena, nola ebaluatu?

- Benetan landutakoa ebaluatu, horrela ez dugu gehiago dakiten ikasleen alde jokatu.
- Hizkuntza maila eta lexikoa ebaluatu: hobe hizketa egokituaz; ulermen nahikoaz... hitz egitea hizkera zuzenaz baino.
- Ikasleak besteek esandakoa ulertu du? Berak esandakoa kideak ulertu al du?
- Zentzua eman behar zaio saioari: ahal dela solaskideen arteko ebaluazioa bideratu.
- Alderdi metakognitiboa eta metalinguistikoa jorratu: norbere hizkuntza mailaz hausnartu.
- Hizkuntza gaitasuna, gaitasun kognitiboarekin batera landu behar da. Bien artean lotura dago.
- Eskolak ahozkotasuna landu behar du, baina baita idatzizkoarekin jarraitu ere. Zein trataera eman behar dio bakoitzari? Bakoitza autonomiaz? Bat bestearen lagungarri?

Ahozotasuna eta fraseologia

Maria Conca

(In: Euskara mintzatuaren erronkak, Fito Rodriguez eta Imanol esnaola editoreak, Ibaeta Pedagogia Euskal Herriko Unibertsitatea, 51-55 orr.) *Artikuluaren laburpena.*

Valentziako Unibertsitateko irakasle honek dio normalizazio bidean dauden hizkuntzek (batez ere hedabideetan hizkuntza hauek erabiltzeko garaian) arazo komunikatiboak dituztela.

Normalizaturik dauden hizkuntzetan estandarra bateratua dago eta hori da eskolan, publizitatean, hedabideetan erabiltzen den eredu. Urria eta malgua bada ere hizkuntza erkidego osoak barneratzen du.

Baina hizkuntza gutxituetan (euskara, katalana, adibidez) aldiz, espainolerazko eraginak hizkuntza hauen eremu komunikatiboa gutxiagotu egin du.

Garrantzi handikoa jotzen du gizarteak komunikatzeko dituen premiak kontuan harturik estandarra sortzea. Lan honetan eskolak eta hedabideek duten zeregina azpimarratzen du.

Fraseologi-guneak eta diskurtsoa:

Hizkuntza komunikatiboaren eraikuntza horretan fraseologi-guneak aipatzen ditu. Diskurtsoaren inguruan lan egiten ari diren hizkuntzalariak indarra ematen diote esaldi mota hauei. Adibidez: lokuzioak, errefracuak, atsotitzak, kunplimenduak...izango dira era honetako esapideak.

Fraseologia-gunea: ordenu eta osagarri beretsuekin errepikatzen den adierazpidea da.

Baina zergatik dute bada, esapide hauek halako indarra?

- Diskurtsoa lotzeko ezinbestekoak dira.
- Hiztunen iritzia azaltzeko lagungarriak.
- Informazioa modu laburrean helarazteko erabilgarriak.

Modu laburrean esateko: “Herri-jakintzaren ahotsa dira esaldi mota hauek” (Gresillon eta Mainguneau (1983)

Adibidez: “Xoxoak beleari...” esanda, jende guztiak daki bukaera (“...ipur beltz”) eta horren esanahia ere hedatua dago; denok ulertzen dugu modu beretsuan.

Esapideak eta esperientzia:

Esapideak hizkuntza-erkidego baten metaforak finkatu eta errepikatzen ditu. Historian zehar metatutako kontzeptu abstraktu eta zehatzak aurkituko ditugu esapide horietan.

*“...hizkuntza bakoitzak bere kulturaren arabera irudikatuko ditu metaforak...
Horregatik izaera kolektiboaren islada dira esapideak... Beraz, ezin esan hizkuntza*

baten jabe garela diskurtoaren eraikuntzan funtsezkoak diren esapideak behar bezala erabiltzen jakin gabe.” (CONCA Maria ,1998,Ahozkotasuna eta fraseologia. In Hizkuntza mintzatuaren erronkak.Ibaeta Pedagogia. Donostina. 53 or)

Ahozko estandarrak komunikatiboa izateko esapideak behar ditu. Esapide horiek ulertzea erraza da, berehala hantzematen da irudikatzen dutena eta erritmo errepikagarriak ere laguntzen du esanahia ulertzerakoan.

Dena den, esapide batzuk bere indarra galdu dute, irudikatzen zuten testuingurua desagertu delako. Beste batzuk berriz, indarrean jarraitzen dute jatorrizko esanahiak gaur egungo gizartearekin loturarik ez izan arren. (Ad: “ez adarrik jo”).

Concak dio gaur hizkuntza gutxituen hiztunok gaztelerazko esapideak erabiltzen ditugula gure adierazpideak aberastu edo adierazgarri egin nahi ditugunean. Eta **zera** aldarrikatu nahi du: diskurtoaren eraikuntzan esapideen erabilera premiazkoa dugula, mintza-taldea biltzen dutelako eta komunikazioan lagungarri direlako. Hortaz gain, adierazpide berriak sortuko baditugu, hizkuntza gaurkotzea lortuko badugu, hori tradizioak ekarri dizkigun esapide zaharretatik abiatuta egingo dugula, ezinbestean.

Eskolari lan handia jartzen dio irakasle honek: lokuzioak, esapideak, errefracuak...curriculumena sartu eta erakutsi.

Herriaren metaforak berreskuratu behar ditugu eta hortik izango dugu esanahi berriak sortzeko aukera. Horrela lortuko dugu ditugun premia komunikatiboak maileguak erabili gabe asetzea eta hizkuntza aberastea.

Hedabideetako euskara mintzatua

Joxerra Gartzia

(In: Euskara mintzatuaren erronkak, Fito Rodriguez eta Imanol Esnaola editoreak, Ibaeta Pedagogia Euskal Herriko Unibertsitatea, 11-24 orr.) *Artikuluaren laburpena.*

Ahozotasunaren aro berria

Mintzamenaren pobrezia idatziaren tiraniaren errutzat jotzen du hainbatek. Gartzia ordea, mintzamina eta idazmina, biak ikusten ditu hankamotz eta bata landuz bestea ere hobe litekeela uste du.

Komunikazioaz hitz egitea gustatzen zaio eta, kasu honetan “ahozko komunikazioari” buruz hitz egingo du.

Ahozotasunaren azaleko ezaugarriak

Komunikazioaz hitz egiterakoan diskurtso berean zentratu nahi du eta berak honetan alde batera utziko dituen alorrak aipatzen ditu:

-Tonu-entonazio-azentuak: Euskaltzaindiak nola ez den egin behar, gutxienez, zehaztu beharko omen luke.

-Sintaxia: Argitara eman diren estilo liburuak ditu aipagai: ETB, EGUNKARIA, Esnal-Zubimendi. Ahozko tradizioaren ipuin kontaketa esaldi koodinatuak eta elipsiak nagusi direla dio, baina beste zenbait erregistrotan esaldi subordinatuak beharrezko direla.

-Lexikoa. Abstrakziorako gehiegizko joerak kezkatzen du eta tradiziotik ba omen dago zerikasiasa.

-Distantzia: esatariak entzulearekiko hartzen duena.

-Alderdi ez-berbazkoak.

Honako baieztapen hau egiten du: “Ahozko testuak, arrakastatsu izango bada, ezaugarri batzuk behar ditu: hizketaren baliabide POETIKO-ERRETORIKOZ jardun nahi nuke”.

Literatura baliabide denean

Irrati eta Telebistan erabiltzen den hizkuntzaren azterketa egiten du eta pobrezia nabarmentzen du. Hizkuntza-gaitasunik eza somatzen du esatariengan eta hori, literaturak soilik erremedia dezakeela dio: poesiak, zehatzago esanda.

“Poesia, gauzak modu itxuraz berri eta berezian adierazteko modu bezala definitzen du. Poesiak, bakandu egiten omen du esana. Sentipenak norberak sentitu ohi dituen bezala adieraziak daudela uste arazten digu....kolpe batean, era sintetikoan, modu BAKAN eta zentzuz BETE horretan”.

Herri hizkera poesiaz bete dagoela esango digu Gartzia eta berak adierazkortasun bereziarekin lotzen du, arauaz beste esateko moduarekin, ez denona den esate orokor hutsean, benetako iruditzen zaigun modu bakan-bete horretan.

Esanaren bakan-betetasun horrek baliabide poetikoak erabiltzen ditu: metafora, anafora, sinekdotea, metonimia, sinestesia...Hauek guztiak esanari indarra ematen diote.

Bertsoari topatzen dio berak EMOZIO-KARGA berezi hori.

Txistea ere poesiaren erabilera horren “lagun” bezala definitzen digu. Emozio poetikoa eta umorea parean joatekoak omen dira.

Adierazkortasuna erabiltzen duten generoen artean nabarmenenak bezala bertsogintza, publizitatea eta titularrak aipatzen ditu.

Hartzailearengan “harridura” sortzea da poesiaren (eta txistearen) helburua eta horren bidez emozioa sortzen du.

Bi horiek sortzeko nahitaezkoak dira:

-Esana bakan-betean adierazia izatea.

-Poesian, adierazten den sentipenarekiko atxikimendua (Txistean “deskuido” ulergarritzat ematea).

-Kontalaria ontzat ematea: berarekin bat egitea hartzaileak

Bertsolaritza aztertu du irakasle honek, baliabide poetikoak bilatzeko eta gehien erabiliak antitesia eta hitz jokoak omen dira.

Gakoa tradizioak eskaintzen digun baliabideak ezagutu eta erabili behar ditugula dio eta hori ongi ezagutu ondoren, berriak sortu. Ez diogu zuzentasunari eta egokitasunari hainbeste erreparatu behar, helburua komunikazioz arrakastatsua izatea litzateke.

Honek ere zera esango digu: eskolan trebatu behar dela mintzamina, hizketan trebatzeko hizketarako testuingurua esakini eta hitz egitera eragin behar duela. Eskolak hizkuntza gaitasunei kasu gehixeago egiten hasi behar omen du.

Ahozko hizkuntzaren lanketa, bereziki euskara bigarren hizkuntza dutenentzat

Uri Ruiz Bikandi

(In: Ahozkoikasuna ikasgelan, X.Jardunaldi Pedagogikoak, 2003, Ikastolen Elkarte, 33-56 orr.) *Artikuluaren laburpena.*

Irakasle honentzat ekolan hizkuntza lantzeko garaian gakoa honetan dago: Nola eman haur bakoitzari premiazkoa duen trataera egokia. Haurren jatorria desberdina izanik ere nola egin bakoitzarekin, gerora euskaldun gisa jokatzeko ikas dezan.

Ez du egokitzen jotzen jatorriz euskaldunak izan edo ez eta haurren harreman sarean hizkuntza horrek presentzia izan edo ez, eskolak hizkuntza mailan denek ikaskuntza prozesu berdina eskaintzea.

-Haurrak hizkuntza entzute soilarekin ez du ikasiko; askotan irakasleok hala uste badugu ere. Ulermen maila bat lortuko du, baina horrek ez du mintzatzeko trebetasuna ziurtatzen.

-Hizkuntza batean mintzatzeko mintzatzen trebatu beharra dago.

Ukertzea eta mintzatea, bi buru prozesu desberdin

-Ulermena hizkuntzaz kanpoko faktoreez baldintzatua dago: nor, nori, zertaz....ari zaion komunikatzen. Entzuleak gaiari buruz duen aurre-jakintzak ezinbesteko eragina du ulerkuntzan

-Mintzaterakoan, ordea, hiztunak bere komunikazioa helburuaren arabera antolatu behar ditu ideak; hitz egoki eta zehatz bihurtu; segida onean eman; esaldi eta testu arauari jarraituz; ideien artean lotura azalduz. Eta guzti horrekin batera hurrengo ideia prestatzen hasi behar du.

Solaskidea aspertu ez dadin, garrantzi handikoa da, gainera, prozesu konplexu hori azkartasunez eta trabarik gabe burutzea. Automatismok lortu behar dira eta faktore asko garai berean kudeatu.

Ahozko komunikazioan: **egokitasunak, koherentziak, zuzentasunak eta jarioitasunak** paper esanguratsua jokatzeko dute.

Alderdi hauetan guztietan trebetasuna lortzeak denbora luzeko praktika eskatzen du.

Ikasleen zenbait arazo

Ikasle askok jarioitasun eta automatismo falta azaltzen dute. Horrek espresibitatea gal arazten die eta hutsune hori betetzeko gaztelarazko esapideak erabiltzen dituzte.

Gaur egun eskolan *koherentziari* (testuaren batasunari, ideian arteko harremanari); *egokitasun* eta *kohesioari* (lokailuen erabilera); *morfosintaxiari* ematen zaio garrantzia. Baina hori guztia idatzizkoan lantzen da, gehien bat.

Irakasle honen aburuz diskurtsoaren alderdi guztiak jorratzen jarraitu behar bada ere, **ahozko jariotasunak eta zuzentasunak** izan behar dute orain lehentasuna.

McLaughlin-ek (1990) omen dio bi prozesamendu maila daudela: *kontrolpekoa eta automatizatua*. Hiztunak bere arreta hizkuntza elementu batean edo bitan jar dezake, momentu berean. Horregatik esapideak praktikatu ondoren automatizatu egiten dira, beste prozesu batzuei arreta jartzeko gero. Behin automatizatutakoa aldatzea oso zaila izaten da, baita gaizki ikasia izan bada ere.

McLaughlin-ek berrantolaketa prozesuaz ere hitz egiten du. Horren bidez norberak bere hizkuntza mailari buruzko azterketa egiten du eta kontzientzia hartzeak hobekuntza dakarrela dio. Haurrak esaldien arteko antzekotasunak eta erregulartasunak bilatzenn dituela esaten omen du Karmiloff-Smith-ek (1994).

Eskolak ahozko praktika antolatu behar duelak dio Uri Ruizek eta horrekin batera hizkuntzaren inguruko hausnarketa bultzatu. *Hitz egiteko aukera* ugari ematen badiogu ikasleari, automatizatzeko bidea izango du eta esan duen horren inguruan *hausnarketa* eskatzen badiogu bere ezagutza *aztertzen* eta *berrantolatzen* lagunduko diogu.

Fosilizazioa

Automatizazioa egitura batzuk askotan erabiltzetik dator eta horrekin batera hizkuntza maila aztertu eta horren ondorioz berrantolatzen bada, idea konplexuagoak egituratzeko eta sortzeko gaitasuna garatzen da.

Hori hala gertatzen ez denean *fosilizazioa* sor daiteke. Fosilizazioa ikasleak oinarrizko komunikazio maila lortu, baina hortik aurrera joaten ez denean ematen da. Hizketa ez-sintaktikoa erabiltzen da, eskeletizatua, egitura tipiko eta zurrinak bakarrik dituena. Hitzuna ez da bere hizkuntza maila hobetzen saiatzen eta esamolde okerrak automatizatuak geratzen dira.

Schumann-ek (1990) hitz egiten du honi buruz. Gure kasuan fosilizazioa “euskañola” delakoa erabiltzearekin lotu dezakegu. Ikerle honek arrazoi posible batzuk aipatzen ditu:

-Ikasleak eredia gaizki jaso izatea eta automatiko bihurtzerik ez lortzea.
Mintzapraktikaren eskasiak ekar dezake arazo hau. Horregatik du garrantzia maiz eta luze hitz egiteak.

-Beste ikaskideen hizkera okerraren eraginez, eredu hori automatizatzea. Hori ez gertatzeko zuzentasunari bere garrantzia eman behar zaio eta hizkuntza bakoitzaren forma aztertu, konparaketak ere eginez. Hau lantzeko gelan hizkuntza azalpenak publikoki ematea ariketa komenigarria da.

-Ikaslea bigarren hizkuntzatik oso urrun egotea. Hori sahiesteko hizkuntza horretan bizi direnak nola egiten duten ikasi behar du.

Elkarrizketa, hizkuntzaren ikaskuntza bide nagusia

Uri Ruiz-ek eskolan elkarrizketa lantzea proposatzen du hizkuntzaz jabetzeko esparru naturala delako. Ondoko gogoetak egiten ditu:

-1.-Hitz egiten hitz eginez ikasten da. Ondo hitz egitea mintzapraktika handiaren ondorio da. Irakasleak ondo planifikatu behar du zertaz eta noiz hitz egin behar duten ikasleek. Prestaketarik gabeko elkarrizketak zailagoak dira eta beti betikoek hitz egiten dute.

Hitz egitea, galdetzea, adieraztea, iritziak ematea, asmakizunak egitea....da. Irakaslearen planifikazioak ikasleak ere horretan trebatzea ekarri behar du: gidoiak egiten ikasi, modu desberdinak probatu, ideien arteko harreman sendoak eraikitzen ikasi...

-2.-Ahozko trebakuntzarako oinarria elkarrizketa da. Hitzun trebeekin hitz egitea omen da hitzun berriarren adierazpidea hobetzeko giltzarria. Irakaslearekin dituen elkarrizketak lagunduko dio ikasleari adierazpidea zabaltzen, zehazten eta hobetzen.

-3.-Eskolako bizimodua eta irakaskuntza, neurri handi batean, elkarrizketa bidez bideratzen da. Baina aldi berean funtsezkoa da esan beharrekoa haurren interesekoa izatea. Hori lortzeko bizi edo sentitu dutenaren inguruan hitz egitea ekatzea komeni da. Elkarrizketa bidez kideekin batera ikasi edo eztabaidatutakoak ikasleari pentsamenduan ere aurrerapausoak ematen lagunduko dio. Ikasitako horren ahozko aurkezpenak egitea ere trebatzeko modu bat izan daiteke.

-4.-Talde handietan egiten den elkarrizketa ez da nahikoa. Gutxi hitz egiten duten haurrak identifikatuak izan behar ditu irakasleak eta zenbait estrategia ere erabili beharko ditu: umea orientatzeko, ideiak zabaltzen laguntzeko, euskarri afektiboa emateko... Hizkuntzaren forman erreparatzeko eskatzea ere ezinbesteko izango da.

-5.-Elkarrizketa komunikazioaren oinarritzko jokabideak ikasteko gunea da. Grice-k (1975) hauek aipatzen omen ditu elkarrizketaren arauen artean:
-*Kantitatea*: hitz egin aurretik pentsatu; ideia nagusian zentratu eta bigarren mailako ideak desberdindu; beste batek esandakoa ez errepikatu; ez laburregi, ez luzeegi.
-*Kalitatea*: fantasia eta errealtatea bereizi; frogak eta adibideak jarri;
-*Pertinentzia*: Aurrekoarekin dituen loturak azaldu; ez baditu arrazoitu...
-*Argitasuna*: ordenatua izatea; hiztegi egokia erabiltzea; akatsik ez; birformulatu...

Elkarrizketa inguruan egin beharreko lanak sistematikoa izan behar badu ere, solaskidea ez da nagusiki irakaslea izango, beste ikaskideak baizik.

Praktika, edukia eta forma

Lehen ere esan dugunez, ikaslearen barne-prozesuak kanpotik bultzatu behar dira.

Irakasle honek dionez, Roy Lister eta Liela Ranta-k (1998) irakasleak ikasleen ahozko akatsak zuzentzeko erabil ditzakeen jokabideen artean hauek aipatzen dituzte eragingarri direlakoan:

- Forma zuzena eskatzea.
- Forma zuzenari buruzko galdera egitea.
- Mezuari buruzko argipenak eskatzea.
- Gaizki esandakoa errepikatzea (tonu berezi batean).
- Zuzenketa esplizitua egitea.

Ikaslea gaizki esan duenaz konturatzea ez da nahikoa. Ondo esanda zuzentzeak, artikulatzeak, automatizazioari laguntzen dio.

Laburbilduz, Uri Ruiz Bikandi ahozko hizkuntzaz jabetzeko alderdi koginitiboetan zentratu da lan honetan. Eskolan ahozko hizkuntzaren irakaskuntzari eman behar zaion garrantzia azpimarratu nahi du eta irakasleak ahozkotasuna gelan lantzeko planifikazio sakona egiteko premiaren inguruan ohartarazi nahi ditu.

Gaitasun diskurtsiboa: hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren didaktikan giltzarri

Itziar Idiazabal eta Luis M. Larringan

(Hik Hasi 78.ean egindako irakasle hauen artikulua laburpenean oinarrituta)

Hizkuntzen ikas-irakaskuntzan hiru faktore multzo aipatzen dira:

1.-*Dimentsio diskurtsiboa*: alderdi honi gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio. Testu eta diskurtso hizkuntzalaritzak mintzairari buruzko deskripzio berri bat egiten du. Honek metodologia aldetik ere bide berriak jorratzea eskatzen dio irakasleari.

2.-*Hizkuntzak ikasteko eskaera sozialaren dibertsifikazioa*: Hizkuntzak komunikazio tresna ez ezik, elkarreraginerako tresna ere bihurtu dira. Ikaste eta baliatze prozesuak eleaniztasun egoeran burutzen dira.

3.-*Hizkuntzak eskuratzeko moduak*: Hizkuntza ez da erakunde barruan bakarrik ikasten eta sozializazio orokorrarekin zerikusia du. Oso posible da alde horreratik, eraginkortasunak gramatikaltasunari aurrea hartzea.

Gaitasun diskurtsiboa

Chomsky-k (1965) “gaitasuna” eta “ariketa” kontzeptuak bereiztu zituen. Ondoren Hymes-ek (1971) “gaitasun komunikatiboa” kontzeptua sortu zuen.

Delako “gaitasun diskurtsiboa” “gaitasun komunikatibo” horren azpi osagai bat izango litzateke. Eta hau izan daiteke bere definizioa: “hitzaldiak sortzeko gaitasuna da, eskakizun sozialak eta egoera komunikatiboa kontuan izanda”.(Roulet, 2000)

Baina diskurtso ezberdinen ulermenerako eta sorkuntzarako jakintza eta gaitasun ezberdinak behar dira:

- Ekoizpen batean eragin dezaketen faktoreen ezagutza.
- Hainbat diskurtso (testualak, tematikoak, linguistikoak) sortzeko gaitasuna.
- Estrategia diskurtsibo desberdinen jabe izatea eta norbere diskurtsoa egoera soziokulturalera zehatzetara moldatzen jakitea.

Hiru adibide jartzen dituzte irakasle hauek “gaitasun diskurtsiboa” nozioaren argigarri:

1.-Gaitasun diskurtsiboa ez dago hizkuntza bati mugatua. Hiztun elebidun batek, adibidez, euskaraz egindako ikasketa diskurtsiboak, gaztelaniaz ere baliatuko ditu. Diskurtsoa osagai linguistikoaz gain, portaera eta estrategia zabalagoz osatua dago. Hizkuntza praktikan jartzen dugunean mintzamolde sozial desberdinak erabiltzen ditugu egoera desberdinetan.

2.-Adibidea: Eztabaida. Hau hizkuntza praktikan jartzeko modu jakina da, bere ezaugarriak ditu. Gaiaren jorratze berezia eskatzen die hizlariei: mintzagaia aurrez emana izan arren, elkareraginean eta norbere interesen arabera hezurramitzen joan behar da. Eztabaidak estrategia diskurtsibo zehatz batzuen erabilera eskatzen du.

3.-Gaitasun diskurtsiboa eta kortesia lotzen dira. Hiztuna bere hizkuntza ekintzaren alde “onak” bultzatzen eta “txarrak” saihesten ahaleginduko da. Horretarako zenbait

estrategia landu behar ditu: gauzak zeharbidez adieraztea, jarduna luzatu beharra, diskurtso markatzaile jakinak erabili beharra... Horiek guztiak gaitasun diskurtsiboaren osagai dira.

Idiazabal eta Larringanek ikerketa asko egin dituzte (1997, 2001a, 2001b, 2002a, 2002b), horietatik batzuk “**Eztabaida**”ren inguruan. Hona hemen horietatik ateratako zenbait **ondorio**:

A.-Gaitasun diskurtsiboak hizkuntzen jabeak eta irakaskuntza lantzen lagun dezake. Egoera sozial jakinetan hizkuntza nola ulertu eta erabili ikastea komeni da.

B.-Sekuentzia didaktiko batetik lorturiko ikaskuntza diskurtsiboa, gerora mantendu egiten da.

C.-Ikaslearen motibazioa horrela ulertu behar dugu: esatariarentzat, zein hartzailearentzat, “esanahi bat – mezu bat” duten diskurtsoak sortzea.

D.-Berbaldiaren printzipioak “forma eta zentzua” lotura proposatzen du. Garrantzitsuena hiztun komunitateek hitzez, araez...egiten duten erabilera da.

E.-Eguneroko bizitzan erabiltzen dugun gaitasun diskurtsiboa eta gelan erabiltzen duguna urrun egon daitezke. Eskolan zuzentasunak eta formak du garrantzia, eskolaz kanpo, berriz, mezuak.

Ikaslea gehiago motibatzen da zentzuaren eraketan oinarritzen den metodologia erabiltzen denean.

F.-Gaitasun diskurtsiboaren garapena metadiskurtsoan oinarritzen da: norberak erabilitako egitura linguistiko eta diskurtsiboen hausnarketan.

Ahozko corpusen premia eta euron erabilgarritasuna eskolan

Inaki Gaminde eta Juan Luis Goikoetxea

(In: Ahozkotasuna aztergai VII.Jardunaldiak, 2003, Mendebaldea Kultura Alkartea 7. zb, 107-129 orr.) *Artikuluaren laburpena.*

Artikulua idazten duten bi irakasle hauek “Ahozkotasuna eskolara” gaiari heltzeko garaian, betiko euskaldunaren ikuspegitik egin nahi dute eta irakaskuntzan ahozkoak egoera larria bizi duela esanik hasten dute beren gogoeta.

Hauek dira beren iritziak:

-Tradiziozko ahozko ereduak ez dute zerikusirik gaueko eredu berriekin (bizkaieraren kasuan, bereziki) eta transmisio naturala neurri handi batean eten egiten da behin haurra eskolaratutakoan. Eskolako hainbat eredu txar etxeratu egiten dira eta betiko euskaldunek ez dute indarrik bereari eusteko.

-Eskolak ez du kontuan hartu, orain arte, ahozkoa eta idatzia kode desberdinak direla. (Irakasle hauek zehaztasun handiz aztertzen dituzte bien arteko aldeak, baina nik hemen ez ditut horiek azalduko. Bai,ordea, ahozkoaren ezaugarrietako batzuk).

-Euskara bizitzeko nahi bada, eskolako eredu formala beharrezko bada ere, garrantzitsuak dira baita ere eredu ez jasoak edo familiarak. Eskolako eredu formala besterik ez badaki, nekez eskatuko diogu ikasle bati gelatik kanpo euskara erabil dezan.

-Baina, bestalde, egia izanik zenbait ikaslek euskararekin duen harreman bakarra eskolan ematen dena dela, zaila dirudi helburu nagusia betetzea: Esukal Eskolak hiztun osoak sorraraztea, hain zuen ere.

Gaminde eta Goikoetxeak esango digute, zenbait baliabide jarri behar direla martxan.Hauen artean: herriak dauzkan baliabideak ikertu, egokienak aukeratu eta irakasleen esku jarri era didaktiko batean.

Ahozkoaren ezaugarri berezko batzuk

-Bat-batekoa izatea: zuzendu beharrik badago atzera itzuli behar da. Baina, aldi berean, hartzailearen aurrean egoteak euskarri ez-linguistikoen erabilera bultzatzen du eta elkar-ulertzea errazten.

-Intonazio aldaketak.

-Gaien arteko aldaketa arinak. Zenbaitetan esaldiak amaitu gabe geratzen dira, lapsusak...

-Sintaxia sintetikoagoa da idatzikoan baino. Esaldiak laburragoak. Lexikoan, askotan errepikapenak ematen dira, hots-hitz adierazgarriak, esaldi eginak, modismoak...

-Ahozko hizkuntzak “bariazioak” onartzen ditu: geografiaren arabera; aldagai sozialetan dagozkien moldaketak; hiztunak berak dituen erregistroen arabera erabiltzen dituen aldaera desberdinak.

*Kintanarengan oinarrিতuta (Kintana, X. 1986) Euskara batuaren ajeetako bat honetan kokatzen dute Gaminde eta Goikoetxeak: “euskara batuaren izenean hizkuntzaren bariazioa ukatu egin da, horrela zenbaitetan hizkuntzaren sena ukatuz”.

Honen haritik, erregistro familiarra eta ez familiarra berezitzen dituzte. Familiarra, noski, ahozkoarekin loturik dagoena: intimoa eta lagunartekoa. Ez familiarra eredu idatzietatik hurbilago dagoena: formal jaso, neutroa.

Bi erregistro hauen ezaugarriak ere azaltzen dituzte. Familiarrarenak aipatuko dituzte nik orain:

Fonologia	Kontrakzioak Intonazio aldaketa aberatsak Ahoskera arduragabea Palatalizazio adierazgarriak (bustidurak..)
Morfosintaxia	Gramatika trinkoa Aditz ez jokatuak Esaldi adierazgarriak Elipsiak Leku aldaketak Tratamendua: hitanoa
Lexikoa	Mailegu gehiago Bikote lexikoak Eremu sematikoen muga lanbroak Lexiko afektiboa, kortasia formulak, esklamazioak Argota

Jatorrizko hiztunak eta hiztun ikasiak

Familiako euskaldunen eta ikasgelako euskaldunen arteko interakzioan ematen diren arazoak:

-Hiztun ez natiboa ez da trebea bigarren berbetako arau linguistiko formaletan jatorrizko hiztunarengana zuzentzen denean edo ez dio ondo ulertzen eta komunikazioa arazoak sortzen dira. Horrelakoetan jatorrizko hiztuna euskaldun berriarengana makurtzen da, edota biak gaztelera-frantsesera pasatzen dira.

-Jaiotzatik euskaldun ez denak ez du erreztasunik aldaera desberdinak erabiltzeko, eredu formaletik informalerara pasatzeko (euskalki batera, gehienetan) jatorrizko hiztunak egingo duen bezala. Harreman informalaurrean euskaldun berriak deseroso aurkitzen du bere burua.

-Jatorrizkoak eta euskaldun berriek auren artean presuposizio kultural berdina ez dituzte. Interakzio-arau desberdinak erabiltzen dituzte: Adibidez, hiztun natibo batek “Egunon” erabiliko badu agurtzerakoan, euskaldun berriak “kaixo” esango du.

Eskolaren betekizuna

Idatziari jaramon egitez gainera, **ahozkoan indarra jarri behar du eskolak**. Baina garbi dago zenbait ikasleren inguru soziolinguistikoak ez diola batere laguntzen mintzamenaren garapenari.

-Beharrezko da ikasle horiek euskaldunen familietara bidaltzea. Bertan estrategia komunikatiboez jabetzeko eta ondo ala gaizki ari diren zuzenean esperimintatzeko.

-Eskolak familia erdaldunetako eta euskaldunetako ikasleei hizkuntza trataera desberdina eman behar die. Prozesu desberdina eraman behar dute batzuk eta besteek.

-Mintzamenaren irakaskuntza curriculumena sartu behar da eta horretarako laguntza gisa ondokoak azpimarratzen dituzte:

-Berbaldi laburrak landu txikitatik.

-Mailetan gora doazen bezala, hizketaldi luzeagoak landu. Laburrak bakarrik eginez ez baitira luzeagotan trebatuko.

-Entzunaldiak egin eta horietatik garrantzitsuena jasotzen ikasi.

-Hizketaldi luzeen funtzioa informatzailea izaten da.

-Hiztuna hobeto moldatzen da ezagutzen duen gaian.

-Hiztuna hobeto mintzatuko da jarraitu beharreko egitura baten barruan.

Adibidez, errazago egingo zaio deskripzio bat egitea, horren eskema bat bereganatua badu.

Eskola eta tokian tokiko hizkuntza aldaera

Julian Maia

(In: Euskalkia eta Hezkuntza, 2001, Mendebaldea Kultura Alkartea 5. zb, 97-129 orr.)
Artikuluaren laburpena.

Zenbait hizkuntza normalizatuek egin bezala, euskarak ere aldaera desberdinak baztertera utzita izan dituela dio Maiak eta horrekin batera aipatzen, gaur egun eskolan aldaera desberdinei arreta handiagoa jartzearen premia azaldu dutela hainbat jakitunek. (López del Castillo 1982; Agirre, Eguzkitza, Idiazabal eta Larringan 1985; Heras Borrero 1987; Bronckart 1988...)

Bere helburua, artikulua honetan, batetik orain arteko jokabideen arrazoiez gogoeta egitea da, eta bestetik, etorkizunari begira porposamen arrazoituak aurkeztea.

Euskal Herriko Hegoaldeko joerak arakatu ditu, batez ere.

Orain arteko bidea

Eskoletan tokian tokiko hizkuntzaren berezigarri batzuk ez onartzeko joera bat nabarmendu du berak eta hori bi faktoregatik gertatu dela arrazoitu:

- Euskara batuaren ibilbideak izan dituen ezaugarri batzuk.
- Eskolaren zereginen kontzepzio jakin bat. (Bigarren hau aztertu dut nik zehatzago)

Eredu literario formal eta idatzia irakastea hartu du, orain arte, helburutzat eskolak. Bestalde, irakasle artean euskaldun berri ugari izateak euskara batuari konnotazio positiboa eman dio eta zenbait irakasle euskaldun zahar bere hizkuntza moldeaz ez da batere fidatu.

Hori dela eta hizkera molde uniforme murrizta, hotza, uurtikoa, oinarrizkoa, indar adierazkor txikikoa zabaldu da eskolan.

Eskolaren inguruko gizarteak erabiltzen dituen hizkera moldeek ez dute balio izan eskolan, batez ere gipuzkeraren eremukoak ez zirenenan. Hori dela eta, hiztun arruntak lehendik ere bazuen konplexua ez da txikitu eta belaunaldien arteko hizkuntza lotura galtzeko arriskua handitu egin da.

Jokaera aldatzeko bideak topatzerakoan, Sanchez Carrionek esandakoa gogoratzen du: erdarak direla euskara hiltzera daramatenak eta ez euskalkiak euskara batuaren itotzaileak. Hizkuntza aldaera bakoitzak bere zeregina izan behar du elkarren aurkari izan gabe.

Eskolak berak bakarrik ez du lortuko hizkuntzaren irautea, baina lan horretan eragile izateko gizartean txertatua egon behar du. Beraz, ahozkoari ere garrantzia eman behar dio eta komunikazio egoeraren arabera forma batzuk egokiagoak izango dira besteak baino (zuzentasuna eta egokitasuna). (Agirre, Eguzkitza, Idiazabal eta Larringan 1985; Arejita 1986; Uraburu 1992 eta 1993; Goikoetxea 1994, 1996, 1997; Elexpuru 1996; Zuazo 1999 eta 2000...)

Maiak Konstruktibismoan (1990ko hamarurtekoaren hezkuntza berrikuntzaren oinarri teorikoa) topatzen ditu bertako hizkuntza aldaera gogoan edukitzeko beste arrazoi edo kontzepto batzuk: ikasketa esanguratsua (etxean ikasiak ere balio du); garapen hurbileko eremua (dakienetik abiatu) eta motibazioa.

Baina lehen euskararen arazo guztiak euskara batuak konpondu ez bazituen, orain ere ez dezagun pentsa kontrako joerak arazorik ekarriko ez duenik. Euskalkiari eta batuari eskolan zein trataera eman behar diegun hausnartzerakoan 6 faktore ikusten ditu Maiak:

-Eskolaren kontzeptzioa eta bere helburuak: eskolak arreta jarri behar dio umeak ikasia dakarrenari eta tokian tokiko hizkera eta literatur ereduak kontuan hartu.

Ikasleak euskara batua ikasi behar du, baina euskalkiei ere beren komunikazio balioa onartuz, belaunaldien arteko etena ekidinez. Helburua hiztun onak, biziak eta espresiboak egiten laguntzea da. (Zuazo, 2000)

-Ikasleen ezaugarri linguistikoak: zenbat eta euskalkidun gehiago izan inguruan, arreta handiagoa jarri behar dio eskolak tokiko hizkerari.

-Irakasleen prestakuntza eta jarrera: batuaz gainera irakasleek tokiko euskararen berri jakitea komeni da. Edo, gutxienez, horrekiko sentiberatasuna.

-Material didaktikoa: une honetan oso eredu estandarrean egina dago eskaintza.

-Hizkuntza ereduak: Batuaren balio nagusia euskaldun guztion arteko komunikazioa bermatzea eta hizkuntza komunitatearen batasuna irudikatzea da.

Inguru euskalkidunean Haur Hezkuntzan herriko formetatik hastea komeni da, gerora hizkuntza formalerako pausoa eginez.

Eskolak batua eta herri hizkera arteko zubi-lana egin behar du.

Eskolak eredu formal xamar bat behar badu ere, ahozko komunikazioan eta, bereziki, eskolan egin daitezkeen hizkuntza erabilera informalogetan jarrera malguagoa izatea proposatzen digu Maiak.

-Arrazoi politiko-ideologikoak eta arrazoi didaktikoak.

Bukatzeko, Maiak proposamen zehatz bat egiten du; inguruaren euskalduntasun gradua eta ikasleen adina kontuan hartuta, euskalkia eta batua noiz sartzen has daitekeen esaten digu bertan. Zenbat eta inguru euskaldunagoa eta ikasleak txikiagoak ordun eta indar gehiago emango lioke berak euskalkiari, gerora batua ere erakutsiaz.

Irakaskuntza sistemak euskal gizartean batuarekin gertatzen den prozesua gogoan hartu behar duela dio, baina erreferentzia gisa, ez zorrozki bete beharreko arau multzo bezala. Eskolak era autonomoagoan jokatu beharko luke, ahalik eta hiztun hoberenak ateratzeko, euskalkidunei euren hizkeran konfiantza emanaz eta hura zaintzeko eta hobetzeko bideak zabalik utzita.

“Geure berbategie proiektua” ahozko aberastasunaren lekuko

Juan Rekalde

(In: Ahozkotasuna aztergai VII.Jardunaldiak,2003, Mendebaldea Kultura Alkartea 131-155 orr.) *Artikuluaren laburpena.*

Irakasle honek artikulu honetan ARRATIA BHIko Hizkuntza Normalkuntzarako Planaren ekimena (Geure berbategie) aurkezten du. Bertan eskualdeko hitz, esaera, toponimo, goitzenak... biltzeari ekin diote.

Ekimen horren helburuak eta gaiaren inguruko zenbait gogoeta azaltzen ditu berak .

Ahozko eredu okerren kalteak

Guraso euskaldun alfabetatu gabeen haurrak eskolara joaten direnean, hark etxera ekartzen duen hizkuntza onartu egiten dute, besterik gabe.

Zenbait guraso eta irakasle aspaldi alfabetatutakoak dira eta euskara batu formalaren idatzizko arauak erabiltzen dituzte beren ahozko jardunean.

Ahozko euskarak bere arauak dauzka, landu egin behar direnak. Bestela, nola lortu nahi dugu gazteek euskara erabiltzea eskolako hizkuntza formala eta kaleko eredu hain urrun daudenean?

Hizkuntza harrotasuna berreskuratzen

Ahozko transmisioa bermatua behar du euskarak bizi iraupenik izatea nahi badugu. Beraz, ezinbestekoa da ahozkotasuna landu eta baloratzea eskolako eguneroko jardunean. Etxeko jardunari duintasuna edo harrotasuna eman behar dio eskolak.; kalitatezko ahozko hizkera promozionatu eskolan.

“Geure berbategie” delako proiektuak esaera, hitz, ahozko aberastasun jatorrak batu eta eskolan promozionatzea du helburu.

Euskaldun dentsitatearen arazoa

Arratia bezalako eskualde euskaldun eta baserri girikoetan gorde da inon baino hobeto bertako euskararen piper eta gatzia.

Gaur egun herri gehienetan beste bat da egoera eta gazteek euskaraz egiteko arrazoi gutxi dute orain. Ikasleak pertsona helduengana jo eta haien hizkera jasotzean helduen mundua eta kultura hobeto ezagutzeko aukera dute; tradizioari eusteko eta taldekide sentitzeko motibatuagoak daude eta ezagutza ere handiagoa denez, euskaraz egiteko arrazoi gehiago topatzen dituzte. Zaharren eta gazteen arteko komunikazioa indartzen da.

Ez dugu ahaztu behar, Jon Sarasuak dion bezala (Sarasua, 2003) hizkuntzak gure komunikazio eta sorkuntza beharrak asetzeko tresna konplexu, engrasatu eta doitua behar duela izan.

Rekaldek dionez, beren proiektu honekin aurreko belaunaldiekin komunikatzeko era hobeto ezagutuz, euskarari darion mundu propioa bereganatzeko bidea ematen zaio gazteari, bizitasun etno-kulturalaz jabetzen lagunduz.

Ahozkoa eskolan, normalkuntzarako bidea

Eskola eta komunikabideen hizkuntza ereduen eraginez jarduera informal eta formalaren arteko tartea handitu egin da azken urtetan.

Etiket euskaldunak diren ikasleak, etxeko hizkera eta kalekoa antzekoak direnez, era naturalean aritzen dira harreman informalean ere euskaraz. Baina komunikazio arrunta bideratzeko behar den hizkuntza trebezia irakasterik ez du lortu eskolak .

Hori dela eta Juan Rekaldek, Juan Luis Goikoetxeak dion bezala (2002), eskolak *Atxikitze* eta *Murgiltze* ereduak desberdinu beharko lituzkeela uste du. Guraso euskaldunak dituzten ikasleekin dakitenetik eta etxeko hizkera bultzatuzetik hasita, ahizko kulturatik ahalik eta gehien edanez.

Honek ere “berbalizazioa” praktikan jartzea proposatzen du, eta gero hori oinarri hartuta, estandarra aberastea erreza izango dela dio.

Ikasleak aiton-amonen hizkera aztertzen jartzeak onurak nesterik ez dakar. Euskaldun oso-osoengandik oraindik har daitekeen ereduari zukua atera behar diogu. Ez dezagun ahaztu gutxi kutsatutako altxorra daukan belaunaldia laster desagertu egingo dela. Zaharren hizkuntz ereduak entzunez hizkuntza landu eta aberasten erakutsi behar du eskolak eta kultura baten transmisioa ere jokoan dago. Aldi berean, gazteen hizkera aztertzen ere jartzen dituzte; horren ondorioz, erderatik zenbat mailegu erabiltzen ditugun ezagutzen ere hasiak dira.

Koldo Zuazoren (2000) ondorengo proposamenak ere bere egiten ditu Rekaldek:

- Sena garatu.
- Norbere hizkeran konfiantza eta ziurtasuna sendotu.
- Belaunaldien arteko hizkuntza lotura estutu.

Hizkuntza Normalkuntza Planean datozen beste zenbait ekimen ezagutzeko gonbitea ere egiten digu Rekaldek (www.ulibbarri.info)

Gatz bila

Eskolako hizkuntza eredu formalekoa da eta ez da harritzekoa gazteek ondoko lotura egitea:

Euskara = Eskola hizkuntza = Lan hizkuntza (zigor hizkuntza)

Gaztelera = Kale hizkuntza = Dibertsio hizkuntza

Badirudi euskara gatzik gabekoa dela eredu ez formaletarako, eta hori arazo handia da.

Eskolak Aldizkaria lantzea eta bertan harreman informaletarako atalen bat sortzea proposatzen du, alderdi hori landu ahal izateko. Kike Amonarrizek (2002) bezala pentsatzen du, gazte argota sortzekotan gazteak berak sortu beharko dutela.

Hizkuntza formalak falta duen bizitasuna eta gatza euskaldun petoen arteko hikeraren ur gazietan dago: Gure nagusien berbetan.

Euskal goitizenen azterketa ere euskal sena lantzeko modu egokitzat jotzen du.

Idatzizko tradizioa ere oinarri ona jotzen du lexikoa aberasteko.

Eskola Gramatika (DBHko Ostadar Proiektua, Elkar GIE)

Andrés Alberdi

(Zatitxo baten laburpena)

Irakasle honek hizkuntzaren alderdi gramatikala jorratzen du zehatz-mehatz, eskema bat aurkeztuz eta puntu bakoitza nahiko zabaltasunez jorratuz. Kontuan izan behar dugu material hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mailan (12-16 urte) hizkuntza gaia lantzen duten irakasleei zuzendua dagoela.

Lan hau oso zabal bada ere nik ipuinak testu bezala zein baldintza edo ezaugarri bete behar ote dituen arakatu nahi izan dut. Bestalde testuaren ezaugarrien xehetasuna ondo ulertzeko ere lagungarri egin zait.

Testuaren propietateak:	
EGOKITASUNA	-Dagokion egoera komunikatiboari moldatzen zaio testua?
KOHERENTZIA	-Testuaren koherentzia semantikoa. Edukina koherentea da? Ideak ordenatuak, progresioan..azaltzen dira?
KOHESIOA	-Esaldi desberdinak elkarrekin lotzeko lokailuak erabili dira? Egokiak dira? Esaldien koordinazioa, menderakuntza, elipsiak, ordezkapenak...
ZUZENTASUNA	-Arau gramatikalak ondo erabiliak? Fonetika, ortografia, morfosintaxia eta lexikoaren inguruko arau gramatikalak.
AURKEZPENA	-Ahotsaren kontrola, etenak, intonazioa, jեսtualizazioa... (beste batuzk idatzizkorako) -Hartzaileari egokitzen zaio igorlea?
ESTILISTIKA	-Aberastasuna, ugaritasuna, uzehazta lexikala -Forma sintaktikoen ugaritasun eta doitasuna -Figura erretorikoen erabilera: metaforak, hiperboleak... -Testuaren aurrean hartzen den arrisku gradua

Hizkuntzaren kalitatea, kezka nagusiak eta proposamenak

Eskarne Lopetegi

(Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren web orria)

Lanerako proposamen bat aurkezten du (ikasle helduen hizkuntza maila aztertzeko, oentsatzen dut nik) eskema zabal baten bidez. Eskema horren atal nagusiak osorik jasoko ditu hemen. Nire ikerketa lanerako, ahozko trebetasun neuketarako garrantzi handikoak jo ditudanetan azpiatalak ere azalduko ditut azpimarratuta.

Ikaslearen Corpora

1.-Produktuaren ikuspegitik (ikasleen azterketak: ahozkoak eta idatziak)

1.1.-Aztergaien kategorizazio nagusia.

-Gramatika: morfosintaxia.

-Baliabide lexikalak: hiztegia.

-Testuak: esaldiak edo esaldi-kateak.

-Ahoskera: doinua, entonazioa

1.2.-Akatsen sistematizazioa:

1.2.1.-Gramatika / Norma:

-Ortografia

-Morfosintaxia

-Semantika: erderakadak, kalkoak, analogiak...

1.2.2.-Diskurtsoaren antolaketa

-Ideien arteko loturak: koherentzia

-Pasarte batetik besterako loturak (lokailuak): kohesioa

1.2.3.-Egokitasuna

-Euskalkia

-Erregistroa

1.2.4.-Aberastasuna

1.2.5.-Jatortasuna, freskotasuna

1.3.-Akatsen iturria.....

Ahozko gaitasunerako elkarrizketa, ahozko gaitasun-mailak neurtzeko azterpidea

Irel Urreiztieta, Isidro Yoldi, Eskarne Lopetegi

(ZUTABE aldizkaria 22 (1990), 164-173 orr.)

Irakasle hauek Estatu Batuetan erabiltzen den AGE izeneko froga deskribatzen dute, bere balioak aztertu eta moldaketa bat egiten dute Euskararen neurketarako ere erabiltzeko (helduen euskalduntze eremurako).

AGE-k ahoz komunikatzeko gaitasuna neurtzen du elkarrizketaren bidez, modu objetiboan eta hizkuntzaren 10 mailak irizpidetzat harturik.(ACTFL eskala)
Maila bakoitza oso zehatz definitzen du eta ikasleak atal guztietan maila hori eman beharko du, maila hori lortutzat hartua izateko.

Elkarrizketa grabatua da (berriro ere aztertua izan dadin) eta elementu guztiak hartzen ditu kontuan: **gramatika, lexikoa, jarriotasuna eta ahoskera.**

Froga hau erabili behar duen aztertzaileak prestakuntza sendoa behar du.

Taula batean atal edo elementu bakoitzean hizkuntza gaitasun-maila desberdina lortzeko xehetasunak azaltzen dituzte.

Hauek dira atal horiek:

Hiztegia	Gramatika	Ahoskera	Jarriotasuna	Edukia	Funtzioa
----------	-----------	----------	--------------	--------	----------

Ahozko trebetasunaren neurketa

Neska-mutilek kontatutako istorioen transkripzioak

AA -- 65 (40'') 1,62 hitz/seg

Hemen do mutiko bat eta lota nahi dula jun eta ezin dula lo egin eta musika bat eta ezin du eta ordun iyotze a teilatua ta plater healari bat ta jotze yo pixkat aber ze, ze pasatze zan ta... extralurtar batzuk ateatze yala eta ordun gero kontuatu zan... azkenik kontuatu zan e... bere anaia gitarra jotzen ai zala ta e... ordun esan ziyon ixiltzeko ta...

Azkenik lo... lo hartu zun.

AB -- 53 (35'') 1,51 hitz/seg

Bazen behin mutil bat Manolo izena zuena eta etzioten inoiz lorik egiten. Orduan erratz bat hartu zun eta eskailerak igo eta igo teilaturantz abiatu zela. Orduan handik musika zetorren eta e... ba... erratzakin jo in zuen eta musika e... gelditu zen.

Eta azkenian e.. orduan... lo... pakean utzi zioten lo... ba.. lo egiten.

AC -- 119 (65'') 1,83 hitz/seg

Ikusten denez muilt hau bakar-bakarrik geatu a, ze...bere gurasoak taberna joan dia zerbait hartzea eta...hau bakar-bakarrik geatu a ta...eztaki ze in ta ganbara iyo a, ta ganbara iyo a ta bat-batian azaldu zaizkio maindire batzuk bezela ta...bildurtuta geatu zaigu eta mamua zala iruittu zayo ta korrika batian bere gurasoena jun ta esan in diye:

-Au! Au! Mamu bat ikusi tela.

Eta han biyak hola geatu ya eta:

-Ze mamu ta ze kristo esatek, motel!

-Ganbara, ganbara joan naiz eta...mamua! mamua zeon!

Eta gurasoak:

-Mutiko hau geroz eta eroago (zeon)... dao.

Eta azkenean ama pixkat pentsatzen geatzea eta esate yo haize handia itteula eta beak bere gelako maindireak leihoan utzi ttula eta haiziakin barrura sartuko zitzaizkiyola, baina etzala mamua, motel!

AD -- 67 (55'') 1,21 hitz/seg

Egun batean...egun batean Joxepe lotara joan zen eta lotan zegoenean rokanrrola entzun zuen eta teilatura igo zen e... erratza batekin eta espaziuntzira...erratzarekin espaziuntzia jo zuen eta hasi zen:

-Eta... Ipurtente! Jeitsi musika lotan nago eta!!

Eta orduan bizilagun guztiak esnatu zituen eta denak garraxika hasi ziren eta erratzarekin e... ET-ren espaziuntzira....jotzen...ET-ren espaziuntzia jotzen hasi ziren eta orduan ET joan egin zen, zeren ez zeukan hor musika entzuterik.

AE -- 93 (80'') 1,16 hitz/seg

Bazen e... bazen behin duende txiki bat bizi zen. Egun batean nabe espaziala etorri zen bere etxea eta musika hasi egin zen. Egun batean.....makil bat hartu zun eta jun zen etxea eta esan zion eta makilarekin jo zion eta esan zuen:

-Zer egiten duzu hor?

Eta berak:

-Lo egin!

-Bai. Nola lo egin? Musikarekin lo egin?

Azkenean iriki zun atea eta gero joan egin ziren eta makilarekin jo egin zion ipurdin eta... gero jun ziren eta berekin eta airean jotzen eta jotzen ipurdia eta bera e.... estrellatzerakoan denak hil ziren e... duende ezik.

AF -- 69 (50'') 1,38 hitz/seg

Bazen behin gizon bat oso haserre...haserretuta zegoena. Egun batean, oheratu zenean extraterrestre bat ikusi zuen balkoitik eta bea...lo nahi zuela egin eta ezin zuela zeati musika, musika asko ez zutelako egiten eta bea ezin zuen lo egin. Orduan eskailerak igo haserre-haserretuta eta...eskoba batekin...erratz batekin extraterrestreari jo zion.

Azkenik lagunak egin ziren eta extraterrestrea joan ziren bere etxea edo bere mundua eta bea pakean joan zen bere ohea lo itera.

AG -- 101 (65'') 1,55 hitz/seg

Behin batean mutil bat joan zen...gaztelu batera eta bertan...gauzak ikusten ai zala...ikusi zun bere aurrian jarri zala ba...mamu bat. Ta hola...ba...maindire txuri bat zeukan gainian ta orduan ba...mutila asko izutu zan. Korrika jun zan bere etxe aldera izututa...ya ezin zula ezer in eta behin etxian zeonian ya aitari eta anaiari...esan zien (anaia-eta etxean zeuden) eta...denak jarri ziren ileak puntan zituztela eta:

-Ze?, Ze esate zu? – ta hola.

Eta ba etzioten sinisten...e...mutilak esaten zien baietz, baietz, baino bestiak...etzuten sinistu.

Eta azkenian, ba... pentsatu zuten e...gaztelu horta juatia berriro ikustea aber zerbait zeon, baina juan zianian ikusi zuten lagun bat zala broma iten.

AH -- 59 (30'') 1,96 hitz/seg

Bazen behin Jon izeneko mutiko bat. Egun batean bere etxean, bere etxeko ganbarara, igo zenean mamu bat ikusi zuen eta gero, ziztu bizian!... atera zen bere aita eta amarengana. Esan zienean...Bere aita eta ama ikusi zituenean honela esan zion:

-Am... aita..., zera... ikusi dut... ai ama!! Amaaa... mamu bat ikusi dudala!!!

Azkenean konturatu zen mamu hori bere amona zela.

AI -- 52 (35'') 1,48 hitz/seg

Egun batean Jon txabola batera joan zen eta beldurrez akabatzen..akabatuta zegoen. Sartu zenean:

-Mamu bat ikusi et - Eta – ah! – korrika bizian atera zen tximista baino azkarrago!!

Bere amari eta aitari kontatu zion eta ordun beraiek jun ziran txabola hartara zein zen mamu hori jakitea eta nor izango eta bere anai txikia!!

AJ -- 55 (40'') 1,37 hitz/seg

Ba...Punki...egun batian...gaztelu sorgindu batera joan zenean...e...han gelditu zen lo egiten eta gauean mamu bat azaldu zitzaionean...bea korrika atera zen eta etxera joan zen.

Hurrengo egunean Punki...Punkik bere lagunei kontatu eta gero ez zuten sinistu, baina gaztelura joan ziren eta...azkenean Punki eta bere lagunak mamua ikusterakoan bildurtu egin ziren eta etxetikan ez ziren urte batean atera.

AK -- 60 (43'') 1,39 hitz/seg

Egun batian Julen kale bazter batetikan zijoan korrika bizian eta derrepente gelditu egin zen eta... ez dakizuela zer aurkitu zuen?? Mamu bat! Eta orduan buelta eman zuen korrika bizian e... Ondoren Txertota izeneko taberna batean bere anaia eta aita aurkitu zituen eta haiei kontatu zien gertatutakoa. Haiek etzieten kasorik egin eta orduan... Orduan Julen etzen inoiz kale bazter horretan sartu.

AL -- 67 (35'') 1,91 hitz/seg

Bazegoen ume bat jun zala bere etxea eta bat-batean ikuste du ma...ma...ma...mamu bat. Izutzen da eta dijoa korrika bere lagunengana tabernan zeudela eta ba ta esaten dio:

-Nere etxean mamu bat dagoela. Nere etxean mamu bat dagoela.

Eta dijoa tipoa eta juten dira etxea eta ikusten dute mamua ez dagoela. Hasten dira bilatzen eta ikusten dute e... Mikel izeneko mutil bat ohean azpian mozorrotuta... ondoan maindire bat zegoelarik.

ALL -- 75 (50'') 1,5 hitz/seg

Bazen behin mu...gizon bat ba...oyea sartzen zanian zerbaitek esnatzen zula ta...egun batian iyo zan...bere eskoba hartu eta bere teiltura, korrika eta plater hegalaria bat zan ba...musikakin ta extralurtar txikiekin eta orduan ba beak...eskoba hartu eta "tok,tok" egin zuen eta orduan monstro txikiak izutu in zian.

Ta azkenian esan zien gizonak aber zertan ari ziren eta izaturik extralurtarrak ba jun ziren bere planetara ta e...gizona oyea sartu zan eta ya inoiz ez zian jun beldurrez, beldurrarengatik.

AM -- 64 (43'') 1,48 hitz/seg

Bazen behin Punki izeneko ume bat. Egun batean bere osabaren etxera joan zen eta... bapatean komonera zijoala mamu bat aurkitu zuen. Orduan be osabaren txabolara joan zen bere ama eta aita han... zeudelako. Beraiei kontatu eta bere gurasoak osabaren etxera joan ziren.

Harea iristerakoan, osabaren etxera sartu eta bere aitak esan zion Punkiri mamua ez zela egitazkoa, baizik eta kojín bat sabana batekin ganean.

Bazen behin Israel izeneko haur bat etxe zahar bat aurkitu zuena. Harea sartu zan eta dena oso ilun zeon..eta bat-batean...,bat-batean aitu zen:

-Uaaa!!

Eta Israelek esan zuen:

-Ai!! Mamu bat....Mamuak ez dia esisititzen eta...

Eta aurreraka jarraitu zuen eta bat-batian...eta bat-batian...mamuarekin aurkitu zen eta karraxika hasi zen:

-Aaa! Amarengana jua behar naiz!!!

Eta menditik behera jun zan e...amaren...bere etxea eta han aurkitu zen bere amarekin eta esan zion:

-Zer gertatzen da Israel, zer gertatzen da?

-Mamu bat, mamu bat, han etxe zaharrean. Mamu bat, mamu bat.

Eta esate yo aitak:

-Ba! Gezurra izango a.

Handik minutu batzutara mamua e...beraien etxeetara azaldu zan eta esan zion:

-Lasai, lasai, haurra. Ez naiz mamu bat, zure anaia naiz.

-Jolin, Ibai! Ze sustoa eman diazun!

-Ez zara goatzen gaur inozentearen eguna dala?

-Hala! Ziria...ziria sartu egin didazu.

Azkenean Ibai eta bere anaia Israel elatua erostera joan ziren e..hango pasteleria.

AO -- 113 (128") 0,88 hitz/seg

Egun batean mutil bat bere etxean mamu bat aurkitzen du. Baina...herriko jende guztiak aurki...tutzen ez zuenez, zera esaten dute:

-Aizue,aizue...non zaudete?

Gero denak... azaldu egin ziren...batzuk mahaitan eserita, beste batzuk....bere etxeetan, baina denak zeuden.

Esaten zuen mutikoak:

-Mamu bat ikusi det nere etxean. Mamu bat ikusi det nere etxean.

Eta jendeak ez...ez zuen sinistu. Orduan poliziar...deitu zion eta bere etxerantz joan ziren, baina poliziak aurretik zijoazenez...mamuak mutikoaren atzetik eta...ez...mutikoak esaten zuen...eman, mamuak bere atzean esan...zegoela esaten zuenean...poliziak ez zion kasurik egiten mamua desagertu egin zuelako. Eta gero, joan egin ziren.

Hurrengo egunean mamua atera zen eta oso haserre zegoen mutikoa, orduan makil bat hartu eta plast! Buruan jo zion. Mamua...infernura joan zen...hori...egin orduko.

AP -- 71 (55") 1,29 hitz/seg

Gau batean Praxkuk lo hartu ondoren teilatutik zetorren e...musika hotsa entzun zuen. Erdi lo sukaldara joan zen erratzaren bila. Eskailerak igotzen hasi eta pare bat aldiz erori ondoren, teilatura iritsi zen. Han, teilatura igo ondoren, espaziuntzi baten beheko aldea erratzarekin jo zuen. Gero nahiko esna zegoenean espaziuntzia zela konturatu eta... orduan bai ibili zituela komeriak!!

Beldurrez dardarka jarri zen eta teilatutik irrist egin eta beheko sasiondora, etxe ondoko sasiondora erori zen.

AQ -- 58 (30'') 1,93 hitz/seg

Joxe bere logelan zegoen eta musika piloa entzuten zen. Haserre zegoen eta eskailetatikan gora joan zen eskoba bat hartuz. Tximinitik gora eta han zer aurkitu eta...espaziuntzi bat!

-Tok, tok, tok -jo zuen.

Baina ez zen inor agertzen.

Azkenik ate bat zabaldu zela konturatu zen eta bere Jon laguna azaldu zen. Orduan konturatu zen lagunaren broma bat izan zela.

AR -- 105 (75'') 1,40 hitz/seg

Joxe Jauna nazkatuta zegoen. Bere logelan musika entzuten zen gauero. Beraz, egunean lo pasatzen zuen egun osoa eta ezin izaten zuen lanera joan.

Egunak pasa ziren eta bigarren urtean gora igotzea erabaki zuen. Bere teiltuan bigarren modeloko espaziuntzi bat aurkitu zuen musika joaz. Presaka sukaldera jetsi...e...erratza bat hartu eta gora iyo zen bigarren modeloko espaziuntziari kolpetxoak joz. Barrutikan bi pertson atera ziren hau esanez:

-Joxe Jauna: zera esatera etorri gara hona: zure nagusia su eta gar dago. Ez dakit zenbat denbora pasa da lanera etortzen ez zarela eta jada nahiko haserretuta dago. Telefonoz ere ez diozunez hartzen espaziuntzi hau erosi zuen zure atentzioa deitu nahian.

AS -- 67 (40'') 1,67 hitz/seg

Egun batean Paulo etxe batean zegoen eta komonera zijoala mamu bat ikusi zuen eta:

-Ai!! Zer da hau!!

Eta korrika etxetik atera eta baso batetik bere etxe aldera joan zen. Gero amari eta aitari gertatu zena kontatu zien eta ama eta aita harrিতuta geratu ziren:

-Baina, seme! Ze pasa da? Goazen poliziar deitzera.

Eta hurrengo egunean deitu zioten eta polizia etxe hartara joan eta mamua akabatu zuten.

AT -- 75 (55'') 1,36 hitz/seg

Egun batean Pepek lotara joaterakoan goiko solairukoak musika jarri zuten eta berak ezin zuen lorik hartu. Joan zen erratzarekin gora eta orduan espaziuntzia jo zion erratzakin, baina extralurtarrak ez zuten kasorik iten. Orduan fuertego bota zuen erratza eta iriki zioten atea ta Pepek esan zuen:

-Kendu ezazue musika!

Eta extralurtarrak ez zioten kasorik egin. Ta orduan Pepek bota zuen erratza eta orduan extralurtarrak joan egin ziren.

Azkenean Pepek diskmana kendu extralurtarrei eta lo hartu zuen.

AU -- 71 (40'') 1,77 hitz/seg

Ba, bazeon behin mutil bat izena zuena Praxku eta zijoanian etxetikan ikusi zun... mamu bat. Ta ordun atea zan korrika ta ikusi zitun bere lagunak kafe bat hartzen. Ta ordun esan zun bere etxean mamu bat zeola ta aber lagunduko zioten. Ta bere lagunak pentsatu zuen txoratuta zeola. Ta e. bata besteai esan zien jungo ziala par batzuk eittea. Ta ordun ailatze ia etxea eta ikuste ue Praxkun anaia txikia maindiria garbitzen.

AV -- 83 (35'') 2,37 hitz/seg

Egun batean Juan etxean zegoen lotan eta entzun zun teilatutikan soinu bat zegoela ez?.. eta hartu zun erratza eta igo zan teilatura eta jo zion extralurtarren nabe bati ez?... Eta ordun e... jetsi zian eta esan zion extralurtarrak:

-Zer nahi dezu?

Ta geo esan zun:

-Ez egin soinu asko. Jun beste etxe batera!

Eta berandugo ba... etzan jun eta berriz jun zan eta esan tzion:

-Juuunn!

Eta etzion kasorik eiten.

Eta azkenean... ba... deitu zion bere bizilagunai eta denen artean bota egin zuten.

AW -- 153 (90'') 1,70 hitz/seg

Bazen behin mutil bat izena zuna Jon, ba...joan zala beldurrezko etxe batea zeola baso batean. Ta zebilen etxea sartzeko atea beida ta aurkittu zunian ba...sartu zan barrua ta ikusi zun zerbatt zebilela bere inguruan, baino e tzekiñ zer zan ta beranduxeago kontuatu zan ba... mamu bat zala. Ta hasi zitzayon ikuitzen jakiteko aber egitazkoa zan ta kontuatu zanian egitazkoa zala ba... jun zan korrika etxe aldea. Baino bidian zehar estropozo in zun ta izugarrizko zauria in zun hankian ta ziyoala ba... etxera iritsi ondoren amak esan ziyon aber ze in tzun hankian. Ta bea kontaktzen hasi zan, baino e... ezin zun ondo kontatu ze beldurra... bere amak ez tziyon sinistuko.

Ta kontatutakoan ba... atta ta ama geldittu zian harrittuta da jun zian berriro etxe beldurgarri harta. Da ai zianian beida ba... krixtona hasi zan ta bere atta bildurrez... bildurtu in zan ta hola zebilela ba...erabaki zuten etxea joatea ta harea gehiyo ez itzultzea.

AX -- 68 (40'') 1,70 hitz/seg

Ba... egun baten Punki jun zan bere etxea ta mamu bat aurkitu zun ta ordun jun zan kaletikan korrika ta korrika. Ta ikusi zun tabernan bere atta ta ama. Ta ordun ba... esan zien ba...etxian mamu bat zeola. Baino egun hortan kasualitatea ta inozenteen eguna zan ta orduan beaiek ez zien sinistu.

Baino, hala re geo etxea jun zianian mamua aurkitu zuten ta ze ta ordun egiya zala.

AY -- 183 (105'') 1,74 hitz/seg

Egun batean Praxku jun tzan mamu – etxe batea ordu eta erdi edo hola pasatzea, denboa pasatzeatikan. Eta sartu zanean hasi zan ibiltzen eta mamu batekin topo ein zun. Eta mamuak esan zion ez bazan juten etxe hartatikan beste leku batea hil ingo ziola. Ta ordun Praxkuk bi aldiz pentsatu gabe, ba jun in tzan etxea eta bere gurasoei kontaktzea. Bere amari esan zion:

-Ama: mamu – etxe batea jun naiz eta han bi mamu ikusi ditut eta esan diate harea hurbiltzen banitzan hil ingo ziatela.

Amak hori entzundakoan esan zion bere senarrari eta ordun ba... biak... bueno familia osoa juna zian gatzelu harta mamua hiltzeko asmotan eta ordun ba... mamua...Hartu zituzten beraien tresnak – eta hara iritsi zianian mamua azaldu zan eta hasi zan mamua: -Ez bazoazte hemendikan, hilko zaituztet!!

Eta beraien atzetikan korrika. Eta ordun ba... pentsatu zuten eskailera batzutatik iyotzea eta iritsi zian gela batea eta han leiho batetik salto in eta berriz sartu zian etxea eta etxean, mamua despistatuta zeonian tiro bat bota eta hil in zuten.

Handikan aurrera familia hori pozik bizi izan zen eta harea joaten ziren oporrak pasatzea.

AZ -- 100 (75'') 1,33 hitz/seg

Ba... behin batian zeon gizon bat xelebrea zala ta beti txantxetan zeola umeekin da. Ta eun batian lota zijoala musika entzun zun "a tope". Ta ordun ba... iyo zan eskailetatikan eskoba batekin eta ordun ikusi zun zala extralurtar baten nabea. Ta ordun ba... ume batzuk zian ba...adarra jotzen zula. Ba...nola goizian beste batek adarra jo zion beak ume bati, ba... geo umeak beai jo zion beai adarra. Ta ordun ba...hasarretu in zan gizona. Ta ordun ba...atea zian nabetikan umiak ta parrezka hasi zian ta gizona amorrazi o in zun ta hartu zun eskarmentua ba... gizonak txantxa, txantxa batzutan pasa ite ziala.

BA -- 84 (45'') 1,86 hitz/seg

Bazeon behin mutil bat Josu izena zuna ta hurrengo egunean zeukan Matematikako azterketa bat ta lo iñ nahi zuen. Ta extralurtarrak musika altu jarrita zeukaten ta haserretzen hasia zegoen ba... ezin tzuelako lo egin. Ta minutu batzuk beranduago erratza hartu zun bere etxetik eta igo zan eskailera batzuetatik teilatura. Eta teilatuan zegoen extralurtarran plater hegalaria ba... erratzarekin jo zuen ta orduan extralurtarrak haserretu ein zian beakin eta eraman zuten bere planetea eta han musika altu jarri zuten eta hurrengo egunean Josu e tzan itzuli.

BB -- 141 (150'') 0,94 hitz/seg

Bazen behin gizon bat lanetik etorri zela. Bera lan asko egin ondoren e..ohera joan zen lo egitera. Baino lo egiten ari zela, musika.. musika arraro bat entzun zuen. Denbora pasa zenean e... ezin zuen lorik egin e... musika molestatu egiten zitzaiolako. Orduan pentsatu zuen, pentsatu zuen... gora iyotzea ea ze aurkitzen zuen. Orduan ganbarako atea ireki eta teilaturantz abiatu zen. Teilatura iritsi zenean e... martzianoen obnisa-edo bilatu, aurkitu zuen. Eskuan...orratz...() erratza bat zeraman. Obnisari erratzarekin jo, baina hala ere musika e... segitzen zuen.

Azkenean martziano batzuk atera eta susto bat eman zioten. Bea bildurrez ikaraturik atera zen korrika bere etxera, baina martzianoak kareta bat kendu ondoren, konturatu zen bere... konturatu zen gizona bere laguna zirela. Eta orduan gizona galdetu zien bere lagunei:

-Eta obnis hori nondikan atera duzue?

Eta bere laguna erantzun zion obnis hori broma bat gastatzeko... e...pentsatu zutela.

BC -- 157 (145'') 1,08 hitz/seg

Bazen behin Pello izeneko gizon bat oso pozik bizi zena bere etxean. Eta behin, gau batean, ohean zegoenean entzun zuen musika fuerte bat eta ordun bea haserreturik, hartu zuen orratz bat eta jun zan eskailera gora ze gertatzen zen begiratzea eta gora iyo zanean ikusi zuen platillo antzeko zerbait. Ta ordun hasi zan jotzen... ta hor builaka hasi zen... builaka ixiltzeko, ze bestela Ertzainari – ta deitu ingo ziola ta gero, ordun platillotik atea zan argi bat eta argi hortatik flotatzen martziano antzeko bat: berdea eta lau begikin eta hiru aho eta zortzi sudurrekin. Ta esan zion ba... martzianoak zeudela afari familiar batean eta zala... extralurtarrentzat zala Udaberriko festa in zutela. Ta ordun... musika zeukatela... dibertitzeko – ta.

Baino Pellok ez zuen...ez zeon ados musika hain altu jartzeagatik, ta ordun segitu zun hor kexatzen – ta.

Ta azkenian Pello hartu zuten... martzianoak Pello in zuten... erakarri zuten beraien platillora eta afaltzeko jan zuten.

Azkenean ya martzianoak ondo pasa zuten gaua.

BD -- 108 (85'') 1,27hitz/seg

Bazen behin gizon bat e... Francsico izena zuena ete bere etxean zegoenean ba... teilatutikan entzuten zituen gauza... soinuak e...soinu asko. Eta bea jun zan gero teilatu... gorantz eta ez tzun ezer ikusi, baino... gero teilatura berriro jun zan, ikusten zitun gauza oso arraroak eta zan planeta bat bezala. Eta jo zuen atea eta esan zun: -Tok, tok!

Eta atera zitzaizkion bi extralurtar eta ordun ba... hasi zitzaizkion palabrotak – eta esaten eta ya bi extralurtar hoiek esaten zioten aber ze esate zun eta esaten....

Azkenean gero nazkatu in zala mutil hori ta jun zala oyea ta gero ya aitu zala beste palabrota batzuk esaten eta ya jun in tziala.

BE -- 136 (65'') 2,09 hitz/seg

Ba... egun batian Joxemi zijuan kaletikan ba... e... gauian ta ikusi zun... hola jun zan da ikusi zun... bapatian mamu bat. Ta ordun bea izututa jun zan korrika ta mamua bere atzetikan jun zan. Ta pasa zun egun osoa korrika ta jun zan e... etxe batetik izena zula “La marimorena” ta gero e...mamua atzetik jun zitzaion ta gero hola jun zala korrika – korrika ta bere attana ta bere anaiarena jun zan. Da esan ziyon mamu batek seitze ziyola. Ta bere anaia-ta barre ein zuten, baino azkenian hainbeste esate zun ba... segi iñ ziyotela beraiei eta etorri zan mamua ta.. hola e... etorri zan ta susto bat eman ziyon bere anayai. Ta bere atta jun zan ta eman zion ostiko bat ta ordun mamua erori zan ta kendu zun maindirea ta kontuatu zian zala ba... bere osoba.

Behin batean Praxku izeneko mutiko bat, ba... juten... doa gaztelu batera eta sartzen da eta atea derrepente itxi eiten zaio. Ta ikuste itu armiarma sare asko... ta geletara abiatzen dala ikuste omen du mamu bat. Eta izugarri izutzen da eta ba... korrika bizian ateatzen da atetik, baino gero erori iten da eta larri – larri ba.. ateratzen da bidetikan etxeraino. Eta hara iristerakoan ikusten ditu han daudela bere gurasoak ta kontatzen die eta bere gurasoak asko larritzen dia. Ta ileak jartzen zaizkie ba... puntadunak. Eta ba.. orain ya daude egunkaria irakurtzen eta iruitzen zaie Praxkuk esan diena ba... txorrada galanta bat. Eta... bueno, esaten dute txorakeri bat dala eta gero gau aldea edo, piztu dute irratia eta han ikusten dute ba... entzuten dute mutiko bat jun dala gaztelura eta bertan ikusi dula mamu bat. Baino hala re bere gurasoak esate diote ... aber beak abixatu dion irratitari edo horrelako zerbait. Eta ba... Praxkuk erantzuten du ezeztz.

Eta geo esaten dio bete aitak ez dituztela hainbeste txorakeri behar eta ba.. ohera joateko.

Xanti izeneko aita bat lotan zeola gauian teilatuan ahots bat entzun zuen eta esan zuen:

-Hau ze izango a, orain ordu hauetan?

Orduan Xanti erratza hartu zuen ta teilaturantz abiatu zen. Ta ikusi zuen plater hegalaria bat eta orduan esan zuen:

-Joe! Zertako ai zea... zertako ai zea hemen molestutzen?

Martzianoak esan zion:

-Joe!! Barkatu, ni hemen eon naiz lotan eta zure teilatuan aurka jo naiz , ta orduan barkatu.

Xantik esan zuen:

-Ba... Ikusiko zu orain!!

Erratzakin jo zuen denbora guztian:

-Tok! Tok! Tok!

Denbora guztian plater hegalarian.

Azkenean ba... plater hegalaria e...gizonak hartu zuen bere... platera eta joan zen beste toki batera Xantik ez molestatzeko.

BH -- 91 (50'') 1,82 hitz/seg

Ba... behin gure Jupi jun tzan ganbara ez? Ta hor zijoan gauz baten bila ta ez tzun aurkitzen eta bat-batian mamu bat azaltzen zaio ta:

-UUUaaa!!!

-Eskailerak jetsi ittu ta korrika – korrika psatze itu jende pilo bat ta denak beaia beida ta:

-Hau ze... honi ze pasa zayo?

Ta korrika baijua ta baijua ta bere gurasoengana iriste a ta:

-Ze gertatze zaizu?

Ta bea, Jupi:

-Mamu bat ikusi et, mamu bat!!

Ta beste jende guztia beai beida parrezka lehertzen da.

Azkenean jun zian etxea lotsatuta ta beste jendia parrezka segitzen zun.

BI -- 111 (83'') 1,33 hitz/seg

Ba.. behin batean zeon gizon bat Frantxisko izena zuna eta zeon lotan. Eta, bapatean entzun zun teilatutik etortze zala soinu bat, hola fuertea ta ... politta, baino fuerteegi zeon. Ta ordun erratza hartu ta, derrepente igo zitun eskailerak ta igo zan teilatura. Ta teilatura igo zan, ta han ikusi zun zeola obni bat. Ta ordun bildurtuta deitu zion Udaltzaingoari, bonberoei... ta hola. Ta ordun etorri zian denak, hor krixton ixkanbila sortu zuten, baino bapatean konturatu zian zala... Maikel Jakson abeslaria zeona obnian.

Ta ordun Frantxiskok ba... gonbidatu zion hartzea hola... koka-kola bat eta bere etxea gonbidatu in zion afaltzea ta. Ordun barkatu in zion eta eon zian hola denbora dexente solasean.

BJ -- 102 (80") 1,27 hitz/seg

Bazen behin mutil bat bildurra ematen ziena mamuak. Eta egun batean mamu bat ikusi zun eta bildurtu egin zen eta korrika beraren aitarengana joan zen, baina ez tzituen aurkitzen. Orduan joan zen bere lagun baten etxera, baino bere laguna ere ez zegoen. Gero, bere etxera joan zer berriz eta bere aitei esaterakoan izutu egin ziren eta harritu ere. Gero, joan ziren beraien aitak mamua ikustera eta ez zegoen. Orduan ez ion... bere gurasoak ez zien sinistu. Gero, beranduago, bere lagunaren etxera joan, dena kontatu eta beldurturik, dardarka hasi zen.

Azkenik, bere lagun..bere lagunari kontatu eta esan zion bere lagunak:
-Ni nintzen mamua!

BK -- 173 (100") 1,73 hitz/seg

Ba... behin gertatzen zaiona da gure Punki joaten dala kobazulo batea. Ez dakit zer jarri zitzaion buruan, tornillo bat joango zitzaion, ba. Ta juten da ta derrepente entzuten du:
-Uuuuaaaaa!!!

Nola pixkat pasota dan ba... jarriko zan beti bezala:
-Ai!! Norbait dago beti, saltsa ta piperra... perejila bezela saltsa guzitzan sartzen.

Ta orduan ahotsarengana hurbiltzen da. Ahotsa gero eta handiagoa eiten zaio ta derrepente notatzen du beldurtzen haste ala ta ordun:
-Amatxo, maitia!!! Ez dakit ba... ez dakit broma den e? Ez dakit broma den ba...

Eta iristen da ta mamua aurkitzen du ta derrepente:
-Buuuuu!!!!
-Aaaaaa!

Ta korrika ospa iten du kaletikan... Aita Santua ere aurretikan pasako zun!! Ba... "los cien metros lisos" esaten dana. Ta orduan korrika – korrika iristen da aita eta amarengana eta:

-Eeeee...!!! - Klaro! Frenatzen!!! Ta esate yo:

-Aita! Ama! Gaur mamu bat ikusi et kobazuloan, Santimamiñekuan!

Ta orduan aitak esate yo amari:

-Katxisla!! Orain lortu dugun diru guztia ordenagailuan gastatu beharrean, umea eroetxean gastatzen beharko dugu ba!!

-Hombre!!!

Ez zioten sinistu eta oso gaizki bukatu zun gixajuak.

Ahozko trebetasunaren neurketa

Erabilitako marrazkiak

